



IURRETAKO JAIK / 13

DURANGALDEKO KOPA ERREFERENTZIAZKO HITZORDU BIHURTU DA KORRIKALARIEN ARTEAN

Eskualdeko mendi lasterketen zirkuitua bide erdian dago. Lau lasterketa lehiatu dira eta beste hainbeste geratzen dira aurretik. Hurrengoa zapatu honetan da: Mañaritik Atxetara.

Antolatzaileak gustura daude Kopak orain arte izan duen harreragaz. / 2-3



Korrikalariak lasterketa hasteko zain, iazko Mañaritik Atxetara lasterketan.

LUCIA MERUELO

Argazkirik onena aukeratzeko unea

ANBOTOk antolatzen duen Udako Argazki Lehiaketa azken fasean sartu da, bozketa fasean. Irakurleek irailaren 24ra arte dute aukera euren argazkirik gustukoenari botoa emateko / 12



**San Faustoko auzo
elkarteak eta Nevers
ikastetxeak botako
dituzte Durangoko
txupinak** / 4



ZATOZ GURE
ESTUDIO BERRIA
IKUSTERA!

Barrenkale, 20
Durango

izeidecoracion.com
@izeiebanisteria

Joseba Derteano DURANGALDEA
Durangaldeko Kopako lau lasterketa lehiatu dira jada eta beste hainbeste geratzen dira aurretik, asteburu honetako Mañaritik Atxetara probagaz hasita. Beraz, aurten martxan ipinitako egitasmoak bide erdia egin du. Apustu berri batek beti ditu bere arriskuak, baina antolatzaileak gustura daude izan duen harreragaz, eta balorazio positiboa egin dute.

Aurten arte lasterketa solteak zirenei gorputz bat eman die Kopak eta zirkuitu moduko batean batu ditu. Horrek interesa piztu du korrikalarien artean, eta horixe zen helburuetariko bat. Interes horren adibide da Sorginen Lasterketako Jon Aranburuk kontatu duen anekdota. "Azken hilean, izen ematea beteta dagoela, hainbatek deitu digute Kopan parte hartzen dabiltzala esateko eta ea tokirik bazegoen galdetzeko. Zoritzarrez, gure lasterketan ez dago tokirik, baina gurearen ondoren Zornotzako Aramotz eta Elorrioko Aldapegora geratuko dira eta haietan parte hartzera animatu ditut. Edozelan ere, istorio honek Kopagazko sortu zen interesa erakusten du", azaldu du.

Kopagaz edo Koparik barik, Sorginen Lasterketako izen ematea atoa agortzen da urtero, baina ez da hori lasterketa guztien kasua. Esaterako, Zaldu Trailleko bigarren aldiak 100 korrikalari batu zituen iaz lasterketa laburra eta luzea kontuan hartuta. Aurten, ostera, 320 parte hartzaile izan dituzte. Beraz, korrikalari kopurua hiru bider halakoa izan da. Neurri batean, antolatzaile talde berriak egindako lan sakonari zor zaio gorakada, baina Koparen eupadak ere bere alea ipini duela uste du Mikel Arroita antola-



Asto Trail mendi lasterketako irteerako argazki bat.

Durangaldeko Koparen lehen erdiko balorazioa positiboa da

Mendi lasterketek elkarlanean martxan ipini duten ekimen berria bere fruituak ematen dabil. Proben erdiak jokatuta, antolatzaileak gustura daude izan duen harreragaz. Bihar Kopako bosgarren proba lehiatuko dute: Mañaritik Atxetara

keta taldeko kideak. "Mallabiko 7Pago, Garaiko Asto Trail eta Berrizko Amaraun lasterketetan parte hartu duen jende asko Zaldu Trailera etorri da Kopan parte hartzera. Batzuek proba laburrean eman dute izena, Koparen

KOPAK LASTERKETEI BATASUN BAT EMAN DIELA ETA ZIRKUITU BAT SORTU DUELA DIOTE ANTOLATZAILEEK

barruan ez egonagaitik. Azken batean, Kopak batasun bat eman die lasterketei, zirkuitu moduko bat sortu du. Sentsazio hori dugu. Nik neuk Mallabian ibilbide laburra egin nuen", adierazi du. Gainera, Kopako edukiek sare

sozialetan "feedback asko" izan dutela adierazi du.

Lasterketen arrakasta herriko ondasunen garrantzia nabarmentzeko erabili dute herri batzuetan. Esaterako, Mallabian, probaren egunean, Trabakutik ur-jauzietara eta 7 Pagora doazen bideak markatu zituzten, jendeak erraz aurkitu zitzaizkien. Horrez gainera, Mallabian sastragaz estalita zeuden bide asko garbitu dituzte ibilbiderako, eta, horri eskerrak, jende askok paseatzeko erabiltzen ditu orain.

Kopako beste abantaila bat barrura begirakoa da, hau da, antolakuntzakoa. Denek dena erosi beharrean, materiala parkekatzen dute. "Esaterako, guk bidea markatzeko erabiltzen ditugun banderatzokak utzi dizkiegu Mañaritik Atxetara probako antolatzaileei, eta haiek bidai batzuk utzi dizkiegute anoa-guneetarako. Gero, eskaera batzuk denok batera egin ditugu; korrikalarien poltsak, esaterako. Elkartasuna handitu egin da", adierazi du Aranburuk.

Mañaritik Atxetara, zapatuan
Kopako hurrengo hitzordua Mañaritik Atxetara da, zapatuan. Iazko lasterketa luzea (43 km), laburra (22 km, Koparako puntuagarrria) eta mendi martxa errepikatuko dituzte, eta lasterketa berri bat sortu dute: Untzillaitz Zuzen, Mañaria Untzillatx tontorragaz lotzen duen 2,9 kilometroko bertikala. Proba guztiak kontuan hartuta, 400 bat parte hartzaile izango dituzte. Lasterketen harira, beste hainbat ekintza izango da herrian. Zapatuan bertan, Euskal Herriko Ardi Txakurren Txapelketa egongo da, 18:00etan. Bezperan, barikuan, Eñaut Elorrietak kontzertua emango du elizan, 20:00etan. Sarrera doakoa da, lekuak bete arte.

Jauregi eta Oyarzabal Kopako lider

Durangaldeko Kopan Ander Jauregi durangarra da lider mutiletan, 240 puntugaz. Bigarren postuan Peio Lagos dago, 210 puntugaz, eta hirugarren Irazu Aranburu 200gaz.

Nesketan Lola Oyarzabalek du lidergoa, 270 puntugaz, bigarren postuan Itsasne Urkiaga dago, 250 puntugaz, eta hirugarrenean Leire Uribe, 200 puntugaz.



Lola Oyarzabal da Durangaldeko Kopako liderra nesketan.

Falta diren lasterketak

MAÑARITIK ATXETARA
• Irailak 20, Mañaria
• 22 km - 2.000m+.

SORGINEN LASTERKETA
• Urriak 5, Atxondo - Axpe
• 21km - 1.700m+.

ARAMOTZ MENDI LASTERKETA
• Urriak 18, Zornotza
22 km - 1.300 m+.

ALDAPEGORA MENDI TRAIL
Urriak 25, Elorrio
26km - 1.700m+.

"Gogotsu nago etxeko proba barrutik bizitzeko"

BEÑAT ORMAETXEA IKOBALTZETA (MAÑARIA, 2008) MENDI KORRIKALARIA
Beñat Ormaetxea mañariarrak lehenengoz parte hartuko du Mañaritik Atxetara lasterketan. Iaz boluntario lanetan ikusitako giroa barru-barrutik sentitu gura du

J.D. MAÑARIA

"Ilusioz beterik eta nerbioso". Holantxik dago Beñat Ormaetxea lasterketa bezperan. 22 kilometro maratoi erdian ibiliko da. Urtebete inguru darama mendiko lasterketetan parte hartzen eta hau da orain arte egingo duen probarik luzeena eta gogorrena.

Badator eguna, Beñat!

Bai! Ilusio handiagaz nago eta apur bat nerbioso ere bai, egia esanda. Iaz boluntario lanetan ibili nintzen, antolaketan. Beste lagun batzuekin Larrano inguruan egon nintzen eta han bizitako giroa zoragarria izan zen. Harritu egin ninduen, ez nuelako espero herri txiki batean hain gauza handia sortzerik. Etxeko proba barrutik bizitzea esperientzia ahaztezina izan behar zela pentsatu nuen eta horrela animatu naiz aurten parte hartzera. Gogotsu nago eta ea dortsala ipinita kontua zelan doan.

Zer helburu duzu?

Mañaritik Atxetara egin dudana lasterketarik gatzenetarikoa da, duen desnibela ikusita. Horregaitik nago apur bat nerbioso. Baina herrian izateak eta lasterketako hainbat puntutan jende ezaguna egongo dela jakiteak animoak ematen dizkit.



Beñat Ormaetxea Mañariko plazan, atzean Untzillatx mendia duela.

Momenturik politena helmugaratzea izango da. Helmugaratzear nagoela lagunak ni animatzen irudikatzen ditut eta ilusioa egiten dit. Lasterketagaz gozatzea da nire helburua, ez denbora konkretu bat egitea. Iaz boluntario lanetan ikusi nuena aurten barrutik bizitzea, horixe gura dut.

Ibilbidea ondo ezagutzea abantaila bat da?

Laguntzen du, bai. Sarritan entrenatu naiz handik, eta badakit indarrak noiz eta non erabili. Bidea ezagutzea beti da interes-

garria. Hala ere, antolatzaileek lan bikaina egiten dute bidea markatzen, eta ez da arazorik egoten.

Beste lasterketa batzuekin alderatuta, zelakoa da Mañaritik Atxetara?

"DURANGALDEKO KOPA EKIMEN INTERESGARRIA DELA USTE DUT. SALTSA HORI ONDO DATOR"

Orain arte nik egindakoak baino gogorragoa, hori seguru. Lasterketaren izenak dioen moduan, hatxetatik ibiliko gara eta horrek esan gura du ibilbide tekniko delako. Ez da joan eta korrika egitea bakarrik. Baina horrek balio erantsi bat ematen dio lasterketari.

Gustatzen zaizkizu horrelako ibilbideak?

Bai, ondo egokitzen naiz ibilbide teknikoetara. Gustuko dut ibilbide harritsu eta gorabeheratsuetan ibiltzea. Entrenamenduak hemen inguruan eginda, asko hobetzen da teknika.

Durungaldeko Kopa parte hartzen zabilta?

Ez, parte hartuko dudana eskualdeko lehenengo lasterketa da hau. Baina aurrera begira ez dut baztertzen Kopa parte hartzea. Lasterketa politak geratzen dira aurretik: Sorginen Lasterketa, Aldapegora... Mañarian zelan sentitzen naizen ikusi gura dut lehenengo. Edozela ere, Durungaldeko Kopa ekimen interesgarria dela uste dut. Sailkapen bat dagoenean jendeak serioago hartzen du kontua eta gehiago animatzen da parte hartzera. Saltsa hori ondo dator eta giro berezia sortzen du.

Aspalditik zabilta mendian korrika?

Mendian oinez eta bizikletan ibili izan naiz aurretik. Urtebete inguru darama mendian korrika eta lasterketetan parte hartzen. Lehengusuak animatuta hasi nintzen. Mendaroko Kilimon eta Unda-Armikelo mendi lasterketetan parte hartu dut, beste batzuen artean. Batez ere lasterketa laburrak egin ditut, 13-15 kilometro ingurukoak. Mañaritik Atxetara izango da orain arte egin dudana luzeena.

Egitarau zabala Mañarian

IRAILAK 19, barikua

- **17:00 - 19:00** Dortsal banaketa.
- **18:00** Serigrafia tailerra Torontileren eskutik.
- **20:00** Kontzertua: Eñaut Elorrieta.

IRAILAK 20, zapatua

- **07:00 - 08:45** Dortsal banaketa.
- **08:00** 43k lasterketaren irteera.
- **08:00 - 09:30** Martxaren azken uneko izen emateak eta poltsa jasotzea.
- **09:00** 22k lasterketaren irteera.
- **09:15** Untzillatx Zuzen lasterketaren irteera.
- **09:30** Mendi martxaren irteera.
- **10:00** Umeen gunearen irekiera frontoian.
- **11:20** 22k lasterketako lehenengoak helmugan.
- **13:00** 22k/Untzillatx Zuzen sari banaketa.
- **13:30** 43k lasterketako lehenengoak helmugan.
- **16:00** Umeentzako lasterketak (3-12 urte).
- **16:30** 43k sari banaketa.
- **19:00** 43k azken lasterketariari ongietorria.
- **19:00** Euskal Herriko ardi txakurren txapelketa.

Biodantzaz ATE IREKIAK

Irailak 23
18:30-20:30

Lourdesko ama
Ikastetxean, Elorrio

Aurretiko erreserba
626 661 292 Mentxu

BABES Txalap.art

Irailak 21, igandea
17:00etan eta 18:00etan

San Agustin KULTUR GINEA

San Agustinale, 12 • Tel.: 946 030 021 • sanagustin@durango.eus



San Fausto auzo elkarteko eta Nevers ikastetxeko ordezkariak udal arduradunekin prentsaurrekoan.

San Faustoko auzo elkartea eta Nevers, Durangoko txupinero

Endika Madinabeitiaren 'Patxikotxu eta Pantxike goitik begira' kartelak iragarriko ditu jaiak

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udala eta jai batzordea aurtengo jaien xehetasunak argitzen hasi dira apurka-apurka. Txupinazo nagusia eta txikia botako dituzten eragileak jakinarazi dituzte. San Faustoko auzo elkarteak jaurtiko du lehenengoa, eta ekitaldi berezia izango da inondik ere, aurtun elkarteak bere 50. urteurrena ospatzen du eta. Auzo elkarteko kideak pozarren agertu dira: "Gure auzoko eta udalerriko jaiak dira. Pozarren gaude txupina botatzeaz". El-

karteko kideak izaten dira, hain zuzen ere, Patxikotxu urtero sortzeaz eta txupinazoan udaletxeko balkoira garraiatzeaz arduratzen direnak. Halaber, auzo elkartekoak jai batzordeko kideak ere badira.

Bestalde, Nevers ikastetxeko ikasle ordezkariak "irrikan" daude jaiak hasteko. Era berean, sanfaustoak "pozik, errespetuz eta aniztasunez" ospatzera deitu dute. Mireia Elkoroiribe alkateak ere bere egin ditu berbok. Jai "seguru, lasai eta berdinzaleak" ospatzea eskatu du. "Balio beza-

te jaiak harrotasun durangar hori alaitasunez, irribarrez, dantzari eta elkarri lagunduta ospatzeako", esan du. Egitarau osoa irailaren 22an aurkeztuko dute.

Kartelean, etxean legez

Endika Madinabeitia durangarra izan da aurtengo jaietako kartelaren egilea, lehiaketa irabazita. Lanak *Patxikotxu eta Pantxike goitik begira* du izena, eta durangarren jai giroa, herriko koloreak eta jaietako pertsonaia bien begirada islatu ditu bertan.

Mozorro Eguneko karrozek udalaren baimena beharko dute

Durangoko Udalak karroza eta orga kopurua mugatuko du. Neurriak Alde Zaharrari baino ez dio eragingo

Ekaitz Herrera DURANGO

Iazko mozorro egunean Alde Zaharreko kaleetan pilaketa handiak sortu zirela eta, Durangoko Udalak neurriak hartu ditu: kuadrilla, elkarte eta kolektiboek aurretiaz izena eman beharko dute jaietako mozorro egunean karrozak eta orgak kaleratu ahal izateko. Izena emateko epea irailaren 30era arte egongo da zabalik udalaren www.durango.eus/karrozak atarian. Eskaera kopurua mugatu dute, gainera: udalak 10 karroza eta 20 orga baimendu-

ko ditu gehienez. Eskatzaile kopuruak ezarritako muga gainditzen badu, zozketa egingo dute. Era berean, neurriak hartu dituzte karrozen musika bolumena eta tamaina kontrolatzeko. Kuadrilla eta elkarteek identifikazio dortsala ipini beharko diote gailuari.

Alde Zaharrean

Neurri horiek guztiek Alde Zaharrari baino ez diote eragingo. Udalak jende pilaketak saihestu eta jai "begirunetsuagoak" bermatu gura dituela esan du.

Durangoko txosnek 06:00ak arteko ordutegia izango dute

Txosnen esanetan, herritarren agerraldi eta sinadurek lortu dute udalak "ordutegi murriztu" atzera botatzea

Ekaitz Herrera DURANGO

Txosnen itxiera ordutegia eztabaida iturri izan da azken urte bietan Durangon, baina badirudi udalak eta txosna batzordeak adostasuna lortu dutela aurtengo jaien atarian. Txosnek jakinarazi dutenez, aurtun 06:00ak arte zabaldu ahal izango dituzte etxolak, eta, horrenbestez, orain urte gutxira arte ohiko ordutegia zena berreskuratu dute. Batzordeko kideek sare sozialetan zabaldu dutenez, martxan ipinitako sinadura bilketak eta herritarren agerraldiak eragin dute udalaren

erabakian: "Aurtun ere, Durangoko Udala txosna batzordeari oztopoak ipintzen ahalegindu da, txosnak itxeko ordutegi murriztu proposatuta. Azkenean, baina, zentzunbako neurri horri aurre egitea lortu dugu", esan dute.

Iazko jaietan ere, txosnek "oztopoak" izan zituzten aipagai. Udalak ordutegia murriztu, "kartelak eta olanak kentzeko aginduak" eman, eta soinu-mugatzaileak "modu desegokian" ezarri zituela kritikatu zuten. Aurtengo ekainean ere, "trabak ipintzeari uzteko" eskatu zioten udalari.

Ermodo eta Olleria arteko bide berdearen ezaugarriak, argitara

Trenbidearen trazadura oinezkoentzat zein bizikletentzat egokitu, eta metalezko zubia zaharberrituko dute

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak lehiaketa publikora atera du trenaren trazadura bide berde bihurtzeko proiektua. Egitasmo horregaz, Ermodo eta Olleria kaleen arteko eremuak egokituko di-

tuzte oinezkoentzat zein bizikletentzat. Ia 1.200.000 euroko inbertsioa egingo dute erdiguneko 570 metro atontzeko. Trenbideko elementu zaharrak botako dituzte, hala nola itxitura-hormak. Horrez gainera, 2.260

metro karratuko berdegunea ipiniko dute.

Era berean, proiektuak Mañaria errearen gaineko metalezko zubia zaharberritzea aurreikusten du, eta oinezkoentzako eremua atonduko dute Ermodo eta Matxinestarta artean. Azkenik, Olleria aldeko pasabide, espaloie eta bidegorri eta apar-kalekuak berrantolatuko dituzte.

Mireia Elkoroiribe alkateak azpimarratu duenez, trazadura zaharra egokitzeko fase hau



Proiektuaren infografia. DURANGOKO UDALA

"erabakigarria" da trena lurperatu osteko lurren "integrazio osoa lortzeko". "Lizitazio honegaz, funtsezko urrats bat emango dugu gune degradatu bat ardatz berde eta bizikidetza esparru bihurtzeko, auzoak lotu eta Durangoko bizi kalitatea indartuko duena", gaineratu du.

Udalak eta Euskal Trenbide Sareak iazko apirilean sinatu zuten trazaduraren lagapena. Durangok 9.300 metro karratuko azalera libratu zuen trenbidea lurperatu eta gero.



Tauparen aurkezpen ekitaldia, Bilboko Kafe Antzokian. TAUPA

Euskal komunitatea ohituren bitartez zelan aktibatu aztergai

Taupa euskaltzaleen mugimenduak egun osoko jardunaldia egingo du irailaren 25ean, Plateruenean

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

Taupa mugimenduak komunitate euskaraduna aktibatzeak giltzak bilatu gura ditu eta hausnarketa jardunaldia antolatu du zeregin horretarako. Irailaren 25ean, Euskal Herriko mugimendu euskaltzaleetako kideak Durangon batuko dira gure udalerrietako ohiturek komunitate euskaraduna aktibatzeak duten gaitasunaz gogoeta egiteko. Jardunaldia Plateruena Kultur Aterpean egingo dute, 09:30etik 16:30era. Horra hori *Taupada* jardunaldien bigarren edizioa izango da, hain zuzen ere.

Hainbat berbaldik osatuko dute egitaraua. Gau Beltzaren bila-kaera, euskal pop kultura berria, Lapurdiko inauterien biziberritzea, kultur ondarearen transmisioa, naturaren eta ohituren arteko lotura eta Atsolorra aztertuko dituzte, besteak beste. Egitarauaren xehetasunak eta

hizlariak Taupa mugimenduaren atarian kontsultatu daitezke.

Globalizazioaren aurrean

Globalizazio garaia direla eta, Taupako kideek adierazi dute kultura minorizatuak, euskaldunenak tarteko, ezinbestekoa dutela "usadio zaharrak garaian garaiko iruditeria sinboliko eta adierazleekin berritzea". Azken urteotako transmisio lanen artean kokatu dituzte, hain zuzen ere, Gau Beltza, Iruñeko Iruinkokoak eta Nafarroa Behereko zein Lapurdiko Libertimendua. Mugimenduak gogorarazi du usadiozko adierazpide horien guztien atzean, mundu ikuskera, balioak eta sinesmenak bateratzen direla, eta identitate komunitario horri funtsezko osagaia eskaintzen diona euskara dela. Hor kokatu dute, hain zuzen ere, ohituren bitartez euskararen eragiteko aukera.

Bizikleta tailerrak eta bide heziketa, asteburuan, Durangon

E.H. DURANGO

Durango erdiguneko kaleak askotariko tailer eta ekintzekin beteko dira asteburu honetan, Mugikortasunaren Europako Astea dela eta. Zapatuan, 11:00etatik 15:00etara, mendi bizikleta eta skate zirkuituak egongo dira Zumalakarregi kalean, baita bizikletak konpontzeko tailerrak ere. Era berean, Joxe Miel Ba-

randiaran kalean, bizikleten margoketa tailerra, eskulanak, talo tailerra, egurrezko jokoak eta xakea egongo dira. Domekan, Zumalakarregi kalean, 3x3 saskibalo txapelketak jokatu dira, 09:00etatik 15:00etara.

Mireia Elkoroiribe Durangoko alkatearen esanetan, Mugikortasun Astea aukera paregabea da "mugikortasun ohiturak aldatzeko beharrianaren inguruan sentibilizatzeko herritarrek, eta garraio-modu jasangarriagoak hartzea bultzatzeko".

Aramotz auzo berritua zapatu honetan inauguratuko dute

Inaugurazio ekitaldia 12:00etan izango da. Musika, dantza, bisita gidatua eta mokadua egongo dira

Ekaitz Herrera DURANGO

Birgaitze lanak amaituta, Aramotz auzoak ingurune berritua estreinatuko du zapatu honetan. Udalak, erakundeetako ordezkariak, auzo elkarteak eta herritarrek 12:00etan egingo dute inaugu-

razio ekitaldi ofiziala, Openge-la deritzon eraikinaren aurrean. Egitarauan musika, dantza, auzo berritua ezagutzeko bisita gidatua eta luntxa egongo dira. Aramotz Berritu proiektua udalak bultzatu du azken urteotan,

Europako Next Generation funtsen laguntzagaz eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailagaz lankidetzan. Proiektuari eskerrak, goitik behera berrituko dute auzoa; berdegune berriak sortu eta eremua modernizatzeko gainera, igogailuak ipini dituzte etxebizitzetan. Auzoaren eraldaketa hiri-berrorenatze jasangarriari eta parte hartzaileari zor zaiola esan du udalak. Herritar guztiak animatu dituzte irekiera ekitaldian parte hartzera.

PUBLIERREPORTAJEA

Berriro beregain izateko errehabilitazioa



IMQ Igorco Orueren Errekuperazio Funtzionaleko Unitateak, hamarkada bat baino gehiagor, adinekoei etxera ahalik eta autonomia handienarekin itzultzen laguntzen dihardu.

IMQ Igorco Orue

Ereriko batek, iktus batek edo ospitaleko egonaldi luze batek eragindako haustura baten ondorioz, adinekoei batek bat-batean gal dezake bere gaitasun funtzionala eta, beraz, bere burujabetza.

Hala ere, kasu horietako askori garaiz eta profesional aditu eta trebatuek osaturiko talde baten eskutik heltzen bazaie, aurreko gaitasun funtzionalaren zati handi bat edo gaitasun osoa errekupeatzea lortuko da.

Horretan dihardu, hain zuzen ere, IMQ Igorco Orueren Errekuperazio Funtzionaleko Unitateak. Izan ere, hamarkada bat

baino gehiagor, hari esker, Bizkaiko ehunka adineko lehenago eta gaitasun funtzional handiagoarekin itzuli dira etxera.

Errekuperazio Funtzionaleko Unitatean izandako ospitaleratzeen ehuneko handiena alda-ka-haustura izan duten pazienteei dagokie. Horien errekupeazioaren helburua da ibilera autonomia lortzea eta etxera itzultzea.

Garuneko hodiekoak istripuak (*iktusa*) dira ospitaleratze bikoarren arrazoiak. Mugikortasun-arazo nabarmena gorputz-erdi bateko mugimendua murriztea da (hemiparesia). Jarrerazko kontrol egokia lortzen saiatzen da fisioterapia, baita le-

kualdatzeak egiten laguntzen (*jaikitzea, oheratzea, esertzea, etab.*), zutik jartzen eta pertsona bakoitzaren egoerara egokitutako ibilera lortzen ere.

Adinekoak luze ospitaleratu-ta egon ondoren, hainbat sintoma agertu ohi dira, hala nola muskulu-masaren galera eta orekaren nahasmendua, zeinek ibileraren egonkortasuna baldintzatzen duten, besteak beste. Errekuperazio Funtzionaleko Unitatearen erabiltzaileen hirugarren talde horri dagokionez, fisioterapiaren tratamenduaren helburua da egoera funtzionala hobetzea, adinekoei beregain izaten laguntzeko.



Martxako kideen argazki bat. IBAITIK ITSASORA

Durangaldea-Palestina, 'Ibaitik itsasora' mobilizazioagaz bat

'Ibaitik itsasora' martxa irailaren 10ean irten zen, Tuteratik, eta zapatuan helduko da Hendaiara

E.H. DURANGALDEA

Ibaitik itsasora elkartasun eta salaketa ibilaldia Euskal Herria zeharkatzen dabil egunotan, Erriberatik kostaldera. Martxa irailaren 10ean irten zen, Tuteratik, eta zapatuan ailegatu-ko da helmugara, Hendaiara. Han egun osoko jardunaldia egingo dute, Palestinaren kontrako genozidioa salatu eta elkartasun sareak josteko.

Mobilizazioagaz bat egin, martxari atxikimendua adierazi eta Lapurdiko udalerrira joateko, Durangaldea-Palestina dinamikako kideek autobusa

antolatu dute ibilaldi amaierara joateko.

Egun osoko egitaraua Hendaian

Egitarauari dagokionez, egun osoan zehar egongo dira ekimenak. 09:30ean martxari ongi-eto-ria emango diote, 10:45ean salaketa eta elkarretaratzea egingo dituzte Carrefour saltokian, eta 13:00etan berba hartuko dute. Arratsaldean, *Palestina 50 urte protestetan* liburuko testu irakurketak, *Flo Talkie Walkie* ikuskizuna, bertsolariak eta Xiberoots taldearen kontzertua egongo dira.

Abadiño, munduko ardi moztailerik onenen topaleku

Irailaren 27an, Euskal Herriko eta Nazioarteko Ardi Moztaileren Txapelketak jokatu-ko dira Abadiñoako probalekuan. Euskal Ardi Moztaileren Elkartek antolatu du txapelketa eta 24 euskal moztaille eta nazioarteko 42 arituko dira lehian

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Irailaren 27an munduko ardi moztailerik onenak batuko dira Abadiñoako probalekuan. Euskal Ardi Moztaileren Elkartek (EAME) Euskal Herriko eta Nazioarteko Ardi Moztaileren Txapelketak antolatu ditu. Abadiñon jokatu-ko den txapelketan 66 moztaille arituko dira. Horietatik 24 euskal moztailleak dira, eta tartean Mallabiko bi daude, Zorion Abendibar eta Aritz Abendibar. Beste 42ak nazioartekoak dira. Nazioarteko moztaileren artean, munduko errekorrak egindako parte hartzaile bi egongo dira: Nick Greaves (Inglaterra) eta Ivan Scott (Irlanda). Nazioarteko 8-10 epailek ebaluatuko dute proba.

Txapelketari dagokionez, egun osoan zehar jokatu-ko da, 08:30etik 20:00etara. Goizean, 08:30etik 13:30era, kanporaketak jokatu-ko dituzte, eta 15:00etatik aurrera finalerdiak eta finalak. Horrez gainera,



Txapelketa Abadiñoako probalekuan jokatu-ko da. AITOR KARASATORRE (FOKU)

ardi eta artile produktuen artisau azoka ere egongo da probalekuan, besteak beste.

Hilaren 27ko txapelketan, Euskal Herri osotik ekarritako 1.000 ardiri moztuko diete ilea 66 moztailleek. Makinaz eta ar-

taziz arituko dira, hiru kategoriatan banatuta: senior, open eta nazioarteko kategorian. Antolatzaileen berbetan, Abadiñoako teknika, abiadura eta trebezia handiko ikuskizuna izango da.

Sarbide irisgarria ipini dute Mallabiko Learreta Markina ikastetxean

Ikastetxe publikoko sarbideak seguruagoak eta erosoagoak izateko lanek 7.395 euroko aurrekontua izan dute. Udalak jakinarazi du lanak eskaera bati erantzunez egin direla

M.Z. MALLABIA

Mallabiko Learreta Markina ikastetxean lanak egin dituzte; besteak beste, aparkalekuaren eta sarbideko espaloia-aren artean zeuden arkitektura-oztopoak kendu dituzte, hezkuntza-komunitate osoarentzat ikastetxerako irisgarritasuna hobetzeko helburuagaz. Lanak egiteko, atzealdean dagoen aparkalekuko plaza bat eta ondo-ko berdegunea erabili dituzte, eta bertan arrapala bat egin dute handik pasatzeko.



Arrapala berria ipini dute Learreta Markina ikastetxean. MALLABIKO UDALA

Zaparradak bertso afaria antolatu du irailaren 26rako

M.Z. MALLABIA

Zaparrada elkarteak bertso afaria antolatu du irailaren 26rako Mallabian. Herriko Tabernan egingo dute saioa eta Iban Urdangarin eta Iker Zubeldia bertsolariak arituko dira bertan. Trikitilari eta panderojoleak ere egongo dira afaria girotzen. Bertso afaria 21:00etan hasiko da.

Zaparrada elkarte-ko kideek jakinarazi dutenez, bertso afaria joan gura duenak Herriko tabernan erosi ahal izango du txartela. Bestela, telefonoz ere egin dezake erreserba, 696 058 967 telefono zenbakira idatzita. Txartelak 35 euro balio du.

Irailaren 25era arte izena eman daiteke ikastaroetan Abadiñon

M.Z. ABADIÑO

Ikasturte berria hasteagaz batera, Abadiñon udal ikastaroak martxan ipiniko dituzte. Aurrez, baina, izena emateko tarte-za-baldu dute. Irailaren 25era bitartean, Udal Mediatekan, Errota Kultur Etxean eta Herri-aren Arretarako Zerbitzuan eman daiteke izena, baita udalaren webgunean ipini duten inprimaki baten bitartez ere. Ikastaro hauek eskainiko dituzte: yoga, zeinu-hizkuntza, argazki-gintza, pintura, zeramika, sukaldaritza, mantentze-gimnasia, aretoko dantzak, irakurketa-klubak eta sendabelarren ikastaroa, besteak beste.



IKASI EUSKARA GUREKIN

EUSKARA-IKASTAROAK

Maila guztiak (A1, A2, B1, B2, C1, C2)

On-line edo aurrez aurre

Informazio gehiago:

Durangaldeko AEK euskaltegiak:

Durango, Santanoste 4, behea · 607 159 205 · abarrak@aek.eus

Elorrio, San Juan 23, behea · 607 600 901 · abizari@aek.eus

Zorrotza, San Pedro 3, behea · 607 151 917 · zorrotza@aek.eus

Berriz / Zaldibar / Iurreta / Izurtza / Mañaria / Abadiño / Atxondo
662 966 827 · durangaldekoaek@aek.eus

DIRULAGUNTZAK

HABEren eta UDALen dirulaguntzak

Ferixa Nausikoak "ondo" joan direla azpimarratu du udalak

Oro har, jaietako ekitaldietan izandako parte hartzea "handia" izan dela azpimarratu du Elorrioko Udalak



Sukalki eguna. LUCIA MERUELO

A. M. ELORRIO

Ferixa Nausikoak "ondo" joan direla azpimarratu du Elorrioko Udalak jaiak amaitu osteko balorazioan. Txupin jaurtitze "hunkigarria" izan eta gero, hamar egunean denerik egon dela nabarmendu du; hain zuzen ere, etxeko lanetan eta zaintza lanetan behar egiten duten emakume migratzaileek jaurti zuten txupina eta irakurri zuten pregoia. "Jatorri askotako emakumeak udaletxeko balkoian ikustea, bakoitza bere herrialdeko jantziekin eta denak irribarretsu, oso une berezia izan zen", gogo-

ratu dute udal ordezkariak.

Bestalde, elorriarren eta bisitarien parte hartzea "handia eta eredugarria" izan dela ere azpimarratu dute, eta "kuadrillen arteko jokoetan, sukalkietan eta karrozen jaitsieran giro ederra" sortu zela. Dena dela, aurrera begira hobetzeko erronkak ere badituztela azaldu du udalak ohar berean: "Jaiegunetan herritarren arteko bizikidetzaren hobetzea dugu erronka nagusia. Zaratek, musikak eta zikinkeriak eragindako eragozpenek herritar guztien atsedeenagaz eta ongizateagaz talka egin ez dezan".



Txanberi gurutzea.

Txanberi gurutzea garbitu eta zaharberritu dute Elorrion

Elorrioko Udalak herriko bederatzi gurutzeak eraberritu ditu azken urteetan; bigarren erronda bati ekin zion iaz

A. M. ELORRIO

Herriko bederatzi gurutzeak zaharberritu eta horiekin turismoa bultzatzeko lanetan dabil Elorrioko Udalak 2010etik hona. Horrela, XVI. mendeko Txanberi gurutzea garbitu eta zaharberritu du 2025ean. Oraintsu amaitu dituzte lanak. 2010eko hamarkadan zehar, bederatzi gurutzeak zaharberritzeko lanak egin zituen udalak; dena dela, euriak eta gainerako elementuek harria zikindu dute urteotan, eta iaz bigarren erronda bati ekitea erabaki zuten. Hain zuzen ere, 2024an Santa Ana gurutzea zaharberritu zuten.

Txanberi gurutzean, goroldioa eta likena kendu ondoren, pitzadurak itxi eta gatzak kontrolatu dituzte, berrintegrazio kromatikoarekin babesteko. Horrez gainera, bederatzi gurutzeak historikoki dokumentatu, zaharberritu eta hauei buruzko liburua kaleratu du udalak, ondare hori turismo-rako baliatzeko helburuagaz; turismo bulegoan bertan daude eskuragarri liburua zein gurutzeen planoak. Lanaren kostua 7.707,70 eurokoa izan da eta udalak Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntasuna izan du.

Argiñetako estelen erreplika egiteko tailerra

Elorrioko Udalak eta Euskahaldunak elkarteak indarrak batu dituzte tailer berria eskaintzeko

A. M. ELORRIO

Azarotik aurrera beste tailer bat hasiko dute Elorrion, Argiñetako hilerriko estelen erreplikak egiten ikasteko. Udalak eta Euskahaldunak elkarteak antolatu dute tailerra, eta zeramika, hormigoizko moldeak, kartoia eta beste material batzuk erabiliko dituzte; Euskahaldunak Eskultoreen Elkarteak Ana Herranzek, Guillermo Olmok, Jose Luis Gonzalezek eta Belen Urutxurtuk gidatuko dituzte saioak. Ikastaroa azaroko astelehenetan izango da, 18:00etatik 20:00etara bitartean. Parte hartzaileek 25 euro ordaindu behar dute. Izen ematea urriaren 24an amaituko da.



Argiñeta.

Berrizen eskaintza zabala prestatu dute euskara bultzatzeko

Irakurketa kluba, Kontulekua, Kilker Gela eta euskal kanten ikastaroa dira ikasturteko jarduerak nagusiak



Miren Amuriza, artxiboko irudi batean.

A. M. BERRIZ

Berrizko Udaleko Euskara Sailak hainbat ekimen ipini du martxan ikasturte honetarako. Besteak beste, helduentzako irakurketa klub bi; bata *Euskaraz Astiro*, euskaraz irakurtzeko ohitura ez dutenentzat, eta bestea *Miszelanea*, ohituta daudenentzat. Urriaren 9tik maiatzaren 14ra bitartean egunen bilduko dira, Amaia Egidazu eta Miren Amuriza dinamizatzaileekin. Bestalde, *Kontulekuak* haur literatura eta txikiei irakurtzeko ohitura bultzatzeko gunea da; Amaia Egidazuk dinamizatuko du hori. Saiotarako plazarak mugatuak dira eta izen emateak Internet bitartez egin beharko dira. *Kilker Gela* eta euskal kanten ikastarorako ere izena eman behar da. euskara@berriz.eus helbidera idatzita edo 946 225 369 telefonora deituta.

Zornotzako Ogenbarrena auzoa, jaietan murgilduta asteburuan

Domekan Euskal Herriko txistularien topaketa egingo dute Zornotzako kaleetan, 17:00etan hasiko dira

A. M. ZORNOTZA

Iraila bete-betean sartuta ere, Zornotzan jaiak ospatzen jarraitzen dute. Hain zuzen ere, atzo hasi zituzten Ogenbarrena auzokoak. Domekara arte iraungo dute, eta, besteak beste, txapelketak, musika eta Euskal Herriko txistu topaketa egongo dira. Txupina gaurko 18:00etan jaurtiko dute eta lehenengo ekitaldiak igel eta tortilla txapelketak izango dira. Musika jartzaileak, zumba eta karaokea ere egongo dira. Zapatuan, babarrun lehia-keta eta haurrentzako apar fes-

ta izango dira. Guztira, bederatzi taldek parte hartuko dute Udazken txistulari taldeak antolatutako ekimenean; 17:00etan banakako kalejirak hasiko dituzte Adurtza, Usartza, Oskia Gazteak, Getxa Goi, Kankinkabara, Jaizale, Gure Ametsa eta Udazken taldeek; 18:00etan kalejira bateratua egingo dute. Auzoan bertan kontzertua eman go dute gero.

Domekan, jaiak borobiltzeko, merkatu solidarioa eta wadokan arte martzialen erakustaldia egingo dute, besteak beste.

SCHMIDT

SUKALDEAK ETA ETXEKO ALTZARIAK

Urriaren 1etik 31ra
URTEURREN ESKAINTZAK

20%KO DESKONTUA
zure altzarietan*

*Eskaintza baliagarria sukaldeko altzari guztietan. Ikusi baldintzak parte hartzen duten dendetan zure Schmidt saltzailarekin.

anboto
kide

Anbotokideen
txokoa

IRAILEKO ZOZKETAK



BASA take away jatetxeko bi gazta tarta razio. Zaporeak aukeran: gazta tarta labean, pistatxo, kitkat, mango, oreo, lotus edo pantera rosa.



Aukan izozkiak. 6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. Durango.



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz. Zornotza.

Okm:
batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Agustin Sarrionandia da Mañariko alkateorde berria

Eguazten goizeko udalbatzarrean hartu zuen zinegotzi kargua. Esperientzia du udal arduretan: 2015-2019 bitartean hirigintza arloko zinegotzia izan zen. 64 urte ditu eta jubilatuta dago. EITB taldeko kazetaria izan da 40 urte inguruan

Joseba Derteano MAÑARIA

Agustin Sarrionandia Merino mañariarrak EH Bilduko zinegotzi kargua hartu zuen eguazten goizean egindako udalbatzarrean, udalak ohar batean jakinarazi duenez. Horrela, udalbatzarrek zazpi ordezkari ditu berriro. Sarrionandiak, hain zuzen ere, Ainara Otxotorenak ekainean udalbatzarrean libre utzitako tokia beteko du. Sarrionandia Mañariko alkateordea ere izango da legegintzaldia amaitu bitartean. Udal arduretan esperientzia duen pertsona da, 2015etik 2019rako legegintzaldian hirigintza arloko zinegotzia izan zen-eta orduko gobernu taldean. Gaur egun 64



Agustin Sarrionandia, eguazteneko udalbatzarrean.

urte ditu eta jubilatuta dago. 40 urtean EITB taldeko kazetaria izan da. Udaleko kargu berria "ilusioz" hartu duela

dio. "Gobernu talde langilea eta eraginkorra aurkitu dut eta neure onena emateko gogotsu nago", esan du.

Izurtzako iraganeko askotariko argazkiak ikusgai, gaur, elizan

Arregi Campo familiak Gerediaga Elkarteari dohaintzan emandako argazkiekin osatuko dute proiektzioa



Argazki batzuk udaletxeko balkoian daude ikusgai.

J.D. IZURTZA

Gerediaga Elkarteari Izurtzako argazki zaharren proiektzioa antolatu du gaurko, 19:30erako, Bariko San Nikolas elizan. Bere sasoian Arregi Campo familiak Gerediagari dohaintzan emaniko argazkiak dira, 1953-1959. urteen

artekoak. Arregi Campo familiak Izurtzan pasatzen zuen uda urte haietan. Familia argazkiez harago, Izurtzako ohiturak eta bizimodua erakusten duten argazkiak dira. Hainbat argazki udaletxeko balkoian ere ikusi daiteke egunotan.



Askotariko erakusketak izango dira.

Zapatu honetan Artzain Eguna ospatuko dute Axpen

J.D. ATXONDO

Axpen Artzain Eguna ospatuko dute zapatuan. 11:00etan hainbat ekintza hasiko da: bertaratzeko den bisitariak ebaluatuko duen gazta dastatzea, elkarteko ardi eta ahari erakusketa eta ardi latxaren artilea iruteko tailerra. 12:30ean ardi txakur eta ardi-mozte erakusketak izango dira. Azkenik, 13:30ean, gazta dastatze saioko sariak banatuko dituzte.

Lanketa feministarako tresnak prest Zaldibarren

Urriaren 31tik azaroaren 2ra, Zaldibar Euskal Herriko gazte feministen topaleku izango da; Baterajotzea egingo dute bertan. Musika kontzertuak, bertso saioa, hausnarketarako berbaldi ugari eta tailer praktikoak batu dituzte egitarauan

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Feminismoa lubaki modura landuko zutela iragarri zuten orain hile batzuk, eta oraintsu egitarau oparoa kaleratu dute helburu horri erantzuteko. Euskal Herriko gazte feministek Zaldibarko Baterajotzearen egitaraua aurkeztu dute. Urriaren 31tik azaroaren 2rako asteburuan, askotariko hausnarketa, tailer, kultur adierazpide eta aldarrikapenen topaleku izango dira Zaldibarko kaleak.

Urriaren 31n, euskal feminismoaren genealogia aztertuta hasiko dituzte topaketak, eta ekitaldi kulturalak gozatzeko tartea hartuko dute gero, bertso saio musikatuagaz eta Olatz Salvador musikari donostiarraren kontzertuagaz. Azaroaren leian, gogoetarako saioz beteriko eguna izango dute. Tailerren artean, zaintza dispositiboan izaera patriarkala, drag adierazpenak, lodifobia, protokoloen ezaugarriak eta mugimendu feministak hartu



Baterajotzearen aurkezpen ekitaldia Zaldibarren, maiatzean. GAZTE FEMINISTAK

beharreko norabidea aletuko dituzte, eta ez dira faltako grafiti, idazketa edo fanzine tailerrak. Iluntze aldera, mobilizazioa, ekitaldia eta kontzertuak izango dituzte: Mikosis, Perlata, Ganibet eta Maruxak egongo dira, besteak

beste. Topaketak azaroaren 2an amaituko dituzte. Azoka egingo dute herriko plazan, eta marianito musikatua izango dute ondoan, Xerra gunean. Baterajotzeko egitarau osoa anboto.org atarian dago.

Basabisita egingo dute Otxandioko mugak aztertzeke

Otxandio eta Aramaio arten dagoen Limitadura buelta egingo dute; plazatik irtengo dira, 08:00etan

A. Basauri OTXANDIO

Ohiturari hutsik egin barik, otxandiarrak Basabisita egiteko elkartuko dira domekan, gaur egun ere eztabaida sortzen duen Limitadura buelta egiteko. Plazan ipini dute ordua, 08:00etan.

Otxandio eta Aramaio arten dagoen lur eremuari deitzen diote Limitadua, eta oraindino ez dago argi noren jabetzakoa den. Bada, otxandiarrek irteera egiten dute herriko mugak aztertzeke, iraileko hirugarren domekan. Aurten ere halantxik egingo dute. Mugarren egoera



2023ko Basabisitako irudia. UDALA

aztertu eta ondoko arboletan markak egingo dituzte, herriko mugak markatzeko. Ondoren, udal idazkariak akta jasoko du Oletan. Udal ordezkariak ez ezik, herritarrek ere badute sinatzeko aukera. Bertaratutakoen artean bakailaoa eta ardoa banatzen dituzte.

Liburua

Limitaduren gaiak XV.mendean du sorburua. Halantxik dio auzi historiko hau bere testuinguruan aztertzeke Otxandioko Udalak Belen Bengoetxea arkeologo durangarrari eskaturiko ikerketak. 2018tik 2020ra bitartean egin zuten azterketa historiko sakon horretan baturiko informazioagaz liburu bat kaleratu du udalak, aurten. Domeka eguerdian banatuko dute plazan, udal ordezkariak azaldu dutenez.

Añanako Gatz Harana ezagutzeko bisita, Trumoittearen eskutik

E.H. GARAI

Garaiko Trumoitte kultur elkar-teak beste txango bat antolatu du. Irailaren 20an Gesaltza Añanara (Araba) joango dira, hango gatz haranaren berezitasunak bertatik bertara ezagutzera. Egun osoko txangoa izango da; han, helduentzako bisita gidatua eta umeentzako tailerra izango dituzte.



Añanako gatzagak. IREKIA



GARAIO UDALA

Karlos Ardanza irabazle Garain

Ekaitz Herrera GARAI

Etxean geratu da Euskal Herriko ardi txakurren txapela, Durangaldean, eta, zehatzago esanda, Abadiñon. Karlos Ardanza eta Mendi txakurrak lehenengo egin zuten joan zen zapatuan Garain jokaturiko txapelketan. Ardanza hamar aurkariren artean gailendu zen.

Iurretaren historia ezagutzeko ibilbidea egingo dute zapatuan

Gerediagak eta Urkiola Landa Garapenak 'Auzolanean eraikitako herria' bisita gidatua antolatu dute

A.B. IURRETA

Iurretak Erdi Arotik gaur egunera arte mantendu du kofradien egitura, eta komertzio bide garrantzitsuen lekukoa ez ezik Dantzari Dantzaren gotorlekua ere bada. Iurretaren sorrera, herriaren izenaren jatorria eta historiako garai desberdinetan izandako ezaugarriak ezagutzeko aukera egongo da zapatuan. *Auzolanean eraikitako herria* izenburupean, Gerediaga Elkar-teak, Urkiola Landa Garapena Elkartegaz batera, bisita gidatua antolatu du.

Aita San Migel plaza izango dute ibilbidearen abiapuntu, 11:00etan. Eta bisitak aurrera egin ahala, Montoiko Zubia, Askondo eta Dantzari Dantza hartuko dituzte hizpide. Izena ematea ezinbestekoa da, lekua mugatuta dagoelako. Gehienez 25 laguneko taldea osatuko da. Horretarako, Gerediaga elkartera deitu daiteke (94 681 80 66) edo gerediaga@gerediaga.eus helbide elektronikora idatzi. Antolatzaileek azaldu dutenez, azalpenak euskaraz eta gaztelaniaz emango dituzte.

Argazki lehiaketan botoa emateko aukera irailaren 24ra arte

ANBOTOk antolatzen duen Udako Argazki Lehiaketa azken fasean sartuta dago dagoeneko

M.Z. DURANGALDEA

Dozenaka lagunek parte hartu duzue ANBOTOk urtero antolatzen duen Udako Argazki Lehiaketan, eta argazki zoragarriak ipini dituzue bertan. Dagoeneko lehiaketako azken

fasean sartuta gaude eta orain zuen argazkirik gustukoena aukeratzeko momentua da. Irailaren 24ra bitartean duzue horretarako aukera. www.anboto.org webgunean sartu eta eman botoa.



Bambuaren soinua, argazki lehiaketako argazki bat.

DURANGALDEA ASTEON

'Elektrizitateak' diskoaren aurkezpena Angurretan

MAÑARIA Aitor Monje 'Mudoh' artista berriztarrak *Elektrizitateak* lana aurkeztuko du irailaren 26an, 19:00etan. Bederatzi abestiz osaturiko diskoa da. Lanaren aurkezpena Angurretan izango da. Aurkezpenak sarrera librekoa izango du eta ez da erreserbarik egin beharko.

Atxondoko Udala auzo batzarrak egiten dabil

ATXONDO Urteko balorazioa egin eta herritarren ekarpenak jasotzeko asmoz, Atxondoko Udala auzo batzarrak egiten dabil. Atzo egin zuten lehenengoa, irailak 18, Axpen. Hurrengoa irailaren 23an izango da, Arrazolan, Ludotekan, 19:00etan. Azkena irailaren 24an izango da, Apatan. Hau ere 19:00etan izango da, erabilera anitzeko gelan.

Tellamendirako irteera mendi erronkaren barruan

ATXONDO Asuntze Mendi Erronkaren barruan Tellamendirako irteera egingo dute domekan, irailak 21. Hitzordua Topen ipini dute, 09:00etan. Lau irteerak osatzen dute mendi erronka: Pagoa, Memaia, Larrano eta Tellamendiko irteerek. Antolatzaileek jakinarazi dute mendi erronkako errekonozimendua jasotzeko, 4 barik 3 ibilbide eginda baliozkotzat joko dutela. Azaroaren 21ean errekonozimendu ekitaldia egingo dute mendi astearen barruan.



Musika eta gastronomia txapelketak Goienkalean

DURANGO Gaurtik irailaren 24ra bitartean, Goienkaleko jaiak ospatuko dituzte Durangon. Txupinazoagaz emango diete hasiera jaiei, 20:00etan. Zapatuan egun osoko jaia egongo da: paella txapelketa, bazkaria eta Sugarri txaranga, besteak beste. Domekan, beste hainbat ekintzaren artean, gilda txapelketa, mariatxiak eta zumba saioa egongo dira.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - lurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefona • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

POLITIKAN

PAULE SANCHEZ
EAJ

Egia urruti entzuten da

"Egia ez du adarrik, baina urruti entzuten da" zioen batek. Gezurretan tematuz, iritzi publikoa nahastu guran, soflama populistak bota eta inork ez bezala demagogia eginez aritzen direnak badira. Udal gobernuaren kontra estrategia argia dutenak: *"Miente, miente, que algo queda"*.

Durangoko errealitatea hau da: udal-eskumeneko kalitatezko zerbitzu publikoak eskaintzen jarraitzeko, azpiegiturak hobetzeko, negozio txikiak indartzeko zein gizarte eta kultur ekin-tzak sustatzeko plan eta ekimen ugari martxan jarri dira.

Zarata, frustrazio eta desadostasun eragile diren profesionalak lasai bizi dira kritikan instalatuta, eroso sentitzen dira kexan eta demagogian. Proposamen antzu bakar batzuen sortzaile, Durangoren irudi katastrofikoak zabaltzen trebatuak dira.

Durangoko bizi kalitatea oso ona da. Gurea bezalako udalerrri bat gobernatzeak bere zailtasunak dauzkala egia da, eta horiek ezagutu eta ditugun baliabideekin aurre egitea gure betebeharra dela ere bai.

Durangoko EAJkook horretan gabiltza; etengabe, indarrez eta ilusio handiz, eguneroko arazoei irtenbide egokienak eman eta gure herriarentzat proiektuak sortzen eta inplementatzen.

Gure konpromisoa argia da: durangarren ongizatea eta Durangorentzat etorkizun hobea eraikitzen jarraitzea.

> anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

IURRETAKO JAIK 2025



Iurretako Udalak
jai zoriontsuak
opa deutsuez!



Iurretako
Udalak

IURRETAKO JAIK 2025

IRAILAK 20

11:00 Sortzaile feministen azoka, plazan.

(Euria eginez gero, plazako aterpeak aprobetxatuz, mantendu egingo litzateke)

IRAILAK 26

17:30 Porrotx eta Marimotots *Ostirala iritsi da ikuskizuna* plazan. (Euria eginez gero, Maiztegiko frontoian).

21:00 *Rewinders* Askondon.

IRAILAK 27

8:30 Iurretako XIV. Mendi Martxa plazatik.

8:15 Ahari Iurreta bizikleta martxa Askondotik.

12:30 Pintxo txapelketa dantzari plazan, Aburrecalles txarangak alaituta.

14:00 Jubilatuen bazkaria Askondon.

Jarraian, Uribesalgo soinu-joleagaz erromeria.

16:30 Umeentzako bizikleta ginkana plazan.

18:30 Olaburu eskolako partiduak Kepa Arroitauregi frontoian.

Ondoren, emakumezkoen gomazko paleta partidua eta Bizkaiko nagusien lehen mailako txapelketako partidua.

20:00 Durangoko orfeoiazen kontzertua elizan.

22:00 Kontzertua Askondon: Juego de Damas Band.

22:30 Kontzertuak plazan: *Against You*, *Ganibet* eta *Tatxers*.

Ondoren DJ Guate-K.

IRAILAK 28

7:00 Dultzaineroak plazatik.

9:30/11:30 Indarpaken X. urteurrena: ume eta gazteentzako ekintzak plazan.

Eguerdian bazkaria Askondon. Tikitak salgai.

11:45-12:00 Palestinaren aldeko elkarretaratzea Montoian.

12:00 Jaien hasiera Montoitik.

Ondoren kalejira dultzaineroek alaituta.

14:30 Gazte bazkaria plazan.

18:30 Ohiturazko Doniel Atxa.

Jarraian Iurretako dantzarien azken entsegua.

22:30 Zutik erromeria plazan.

IRAILAK 29

11:00 Dantzari eta agintarien kalejira Montoitik plazara.

12:30 Iurretako dantzariak.

Ondoren Igel txapelketa plazan.

18:30 Iurretako dantzariak.

Ondoren, kantu ta dantza *Mirari Azkune* eta *Gorka Valdesegaz*.

URRIAK 1

19:00 Bakarrizketa saioa plazan: *Asier Galarza*, *Esti Curiel* eta *Manex Astigarraga*.

URRIAK 2

18:00 Bingotonbola intergenerazionala eta txokolatada Askondon.

URRIAK 3

17:00 - 19:00 Ume jolasak eta Maiztegiko ikasleen dantza erakustaldia plazan.

19:30 *El Reciclador* dantzari plazan.

Iuntzean Tortilla txapelketa kaskoan.

20:30 Tortillen aurkezpena.

Parriaundi
— BERTOKO OGIA - BENETAKO OGIA —



info@parriaundi.com • www.parriaundi.com

Arriandi Industriagunea, 9
Tel.: 946 812 148

GauArgi
Dantzari, 4 - behea
IURRETA



Gosariak, pintxoak, molieteteak, rabak, errazioak eta askotariko tortilak enkarguz,...

IK
IURRETA
KOPISTEGIA

Bidebarrieta 1, behea
48215 Iurreta (Bizkaia)
Tel.: 946 811 070

info@iurretakopi.com
www.iurretakopi.com

**SERAPIO CALVO**
Pladur - Asiamientos - Escayola

TABIKEAK, SABAIK, TRASDOSATUAK
Igeltso-dekorazioa
Sabai desmuntagarriak • Isolatzeak

946 811 512 • 615 789 243
Bidebarrieta, 9 • 48215 Iurreta
info@serapioocalvo.es • www.serapioocalvo.es

INSTALAZIOAK
ETA BERRIKUNTZAK

ALDA S.L.

- ITURGINTZA
- BEROGAILUA
- GASA
- IGELTSEROTZA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA

Uralde, 8 - behea
48215 IURRETA
Tel.: 946 812 086
cons.alda.sl@gmail.com

BAÑOS IURRETA
Erakusketa eta komuneko osagarrien salmenta

**ITURGINTZA
BEROGAILUA
GASA**

Tel. /Faxa: 946 202 433
NICO: 644 705 174
E-maila: b.iurreta@yahoo.es

Muspe kalea, 4 • 48215 Iurreta

21:00 Kontzertua Askondon:
Alarma Morea.

22:30 Bertso saioa:
Amets Arzallus, Maialen Lujanbio,
Nerea Ibarzabal, Unai Iturriaga.
Gai Jartzaila: Ainhoa Urien. Kepa
Arroitajauregi frontoian.

23:59 Oilar Baltzak erromeria
plazan.

Ondoren
Malakias MX3 eta DJ Rekal.

URRIAK 4

MOZORRO EGUNA: ZIRKUA

12:30 Poteoa.

14:30 Marmitako txapelketa
Askondon.

Ondoren, herri bazkaria.

16:30 Kuadrilla ikuskizuna
Askondon.

18:00 Sakatu elektrotzaranga.

21:00-22:00 Luhartz erromeria
plazan.

22:45 Luhartz erromeria.



GOIENA

IURRETA Doniel Atxa

Iurretako jaiak Doniel Atxa jasota hasiko dituzte. Ondoren, dantzariak azken entsegua egingo dute.
Iurretako plazan, 18:30ean

Ondoren,
MJ Totozer.

URRIAK 5

11:00-14:00 XXV. Nekazaritza
eta Artisautza Azoka Olaburun.

11:00 Dantzari eta agintarien
kalejira Montoitik plazara.

12:30 Iurretako dantzariak.

Ondoren, Harrijasotzaile
gazteen erakustaldia:
Izadi Agirre, Aritz Abendibar, Izei
Abendibar eta Unai Burgaña.

18:00 Dantza ikuskizuna.
Iurretako dantzariak eta talde
gonbidatua: Lurra Dantza
Taldea (Urretxu).

Ondoren, jaietako errifen
zozketa.

20:00 Herri afaria plazan.

20:30 Erromeria Lorratz
taldeagaz.

22:00 Jaien amaiera ohiturazko
bertsoak kantatuta.

**PABILIOIA
SALGAI**
Iurretan, Mercadona ondoan

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

1.190m²

Tel: 94.681.66.73 • Mug: 649 40 26 23 • zarateylexpe.com

REKA
Gosari bereziak eta
momentuan
egindako pintxoak
Dantzari Auzunea, 4-5 / Iurreta
Tel: 630 149 417

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Elva Industrialdea, 45
Garaio A, BERRIZ
Tel./Fax: 946 824 143
Mug: 658 758 42
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com

AMAYA
AUTOEN KONPONKETAK S.L.

UAI, 1 industrigunea (Orozqueta errepidea)
48215 IURRETA / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango

ofizinako telefonoa: **682296161**
tallerreko telefonoa: **646762022**
e-maila: oficina@amayaautoreparaciones.com
www.amayaautoreparaciones.com

**DESGUACES
PILASTRA**
Fauste, auzoa 18, Iurreta
Tel: 946 201 787

Ibilgailuak tratatzeko eta
deskutsatzeko baimendutako
zentroa gara.
Desegiteko ibilgailuak erosten
eta marka guztietako pieza
erabiliak saltzen lan egiten dugu.



Iurretak Oktoberfest jaialdiaren itxura hartu zuen iazko mozorro egunean.

Iurretan prest daude sanmigelei aurre egiteko

Sortzaile feministen azoka egingo dute zapatuan, motorrak berotzeko. Nobedade legez, jai batzordeak kuadrillen ikuskizuna antolatu du mozorro egunerako; aurten, zirkua da aukeratutako gaia. Jaiek irailaren 26tik urriaren 5era iraungo dute

A. Basauri IURRETA

Jai giro usaina igartzen da Iurretako kaleetan. Dagoeneko hasi dute atzerako kontaketa sanmigeletan murgiltzeko. Ohiturari eutsita, Montoitik jaurtitako txupinazoagaz emango diete ondoetorria jaiei, irailaren 28an. Hala ere, asteburuan hasiko dira motorrak berotzen; emakume sortzaileen azoka antolatu dute zapaturako, plazan.

Herriko hainbat elkarte eta eragile batzen duen jai batzordeak azken urteetako bideari jarraituta osatu du egitaraua. Hartara, irailaren 26tik urriaren 5era kultur eskaintza zabala izango dute Iurretan. Tradizio handiko ekitaldiek aurten ere ez dute hutsik egingo: Porrotx eta Marimotots pailazoez, bertso jaialdiak, nekazaritza azokak, Iurretako mendi martxak, Ahari bizikleta martxak eta Iurretako dantzarien saioak, besteak beste. Kontzertuak irailaren 26an eta urriaren 3an izango dira. Iruñeko Against You eta Tatxers taldeak igoko dira plaza-ko oholtza gainera. Ganibet talde gasteiztarrek eta Zumarragako Alarma Moreak ere joko dute sanmigeletan. Luhartz, Oilar Bal-

tzak eta Lorratz plaza taldeek, eta DJ Rekalek eta Malakias MX3k osatuko dute musika eskaintza.

Kuadrillen ikuskizuna

Aurten kuadrillen ikuskizuna ere egingo dute mozorro egunean. Horixe da jai batzordeak iragarri duen nobedade nagusia. Urriaren 4an, herria zirkubihurtuko dute eta horren barruan Jai batzordeak gonbit egin die kuadrillei abesti bat aukeratu eta ikuskizun bat prestatzera, denen artean "Iurretako Zirkua sortu ahal izateko". Horrez gainera, pintxo lehiaketa ere egingo dute, lehenengoz, eta Durangoko Orfeoia kontzertua emango du.

Sanmigelei ondoetorria egi-teagaz batera, Palestinagazko elkartasuna adieraziko dute Iurretan. Montoitik txapliguak jaurti baino lehenago, Palestinaren aldeko elkarretaratzera deitu du jai batzordeak, 11:45ean. Bestalde, Jai batzordeak esan du jaietan ez duela inolako eraso sexista, homofobo edo arrazistarik onartuko, eta jaietarako protokoloa landuko dutela.

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA – AIREA – GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com

Arzubia 10 B Industrialdea, 13-14 pabillioiek ABADINO

944 071 791 - 692 859 779

URALDE
HORTZ KLINIKA

Uralde 1, behea
48215, IURRETA, Bizkaia

667 097 575 · 946 550 055

info@klinikauralde.com
www.klinikauralde.com

ae
ARRIAUNDI
EGURRAK, S.L.

Santa Maria, 8
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: /Fax: 946 812 347
arriandiegurra@hotmail.com

Forjas de Berriz
GRUPO BERRIZ DE FORJA

PIEZA BEREZEN
FORJAKETA BEROAN

Pol. Ind. Tabernabarri Nº 1A
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 826 520
www.forjasdeberriz.com

ARRIBIDE
GASOLINDEGIA

estacionservicio@arribide.com
arribide.com

946 816 381
POL. IND. ARRIANDI, P-1
48215 IURRETA-BIZKAIA

M.Z. IURRETA

Egun batzuk baino ez dira falta eskualdeko mendizale askoren egutegian markatuta dagoen urteroko zita horietariko batera heltzeko. Irailaren 27an, Iurretako San Migel jaien atarian, Iurretako XIV. Mendi Martxa egingo da. Beste urte batez, mendizale mordo bat Mugarra mendiaren altzotik eta Aramotz mendilerrotik zehar ibiliko dira.

Aurten ere, Zaldai Mendi Taldeko kideek hiru ibilbide antolatu dituzte: txiki martxa, martxa laburra eta luzea. Txiki martxa 4 kilometroko ibilbidea da, Garaizar eta Berezigonetik. Antolatzaileek jakinarazi duteenez, etxeko txikienek egiteko moduko ibilbide erraza da, lagunduta. Martxa laburra 14,2 kilometro ditu, eta 620 metroko desnibel positiboa. Martxa hau Mugarra mendiaren altzotik pasatuko da. Martxa luzea 24,5 kilometro ditu, eta 1.600 metroko desnibel positiboa. Mugarra mendiaren magaletik pasatzeaz gainera, Aramotz mendilerrotik ere pasatuko da; tartean, Artazaganetik eta Leunganetik. Antolatzaileek ohartarazi dute-



Iurretako mendi martxako argazki bat. ZALDAI.EUS

Iurretako mendi martxa, urteroko zita preziatua

Zaldai Mendi Taldeak Iurretako XIV. Mendi Martxa antolatu du irailaren 27rako. Aurten hiru ibilbideren artean aukeratu ahal izango da: Txiki martxa (4 km), martxa laburra (14, 2 km eta 620 metroko desnibela) eta martxa luzea (24,5 km eta 1.600 metroko desnibela)

nez, ibilbide luzeko mendizaleak 11:00ak baino lehenago pasatu beharko dira Katazkatik. Geroago igarotzen direnek ezingo dute ibilbide luzea egin, eta laburra egin beharko dute.

Izen emateak eta ordutegia

Izen ematea aurretiaz egiteko aukera egongo da; irailaren 25eko 23:30era arte, www.kirolprobak.com webgunearen bitartez egin ahal izango da, 12 euro ordainduta. Txiki martxako parte hartzaileek ere webgune berean egin ahal izango dute izen ematea, 5 euro ordainduta.

Bestalde, azken orduan animatzen direnek ere aukera izango dute egunean bertan izena emateko, martxaren irteera bakoitza baino ordubete lehenago. Kasu horretan, martxa laburra eta luzea 15 euroko prezioa izango dute, eta Txiki martxa 8 eurokoa.

Ordutegiei dagokienez, ibilbide laburraren eta luzearen irteera 08:30ean izango da; Iurretako plazatik irtengo dira. Txiki martxa ere toki berean hasiko da, ordubete geroago, 09:30ean.

Garage SAN MIGUEL 

Kutxa automatikoen mantenua
Mekanika orokorrean
Zerbitzu bizkorra
Mantenua
Elektrizitatea
Pneumatikoak
Diagnosia
IATaren aurrekoa
Aire egokitua

Dantzari Auzunea, 8 IURRETA
94 681 14 79 / 628 233 584
www.garajesanmigueldeiurreta.com

 **anboto**
CALDERERIA

 **anboto**
CALDERERIA

GALDARAGINTZA MEHE ETA ERDI ASTUNA

Arriandi Industrialdea 7A
48215 IURRETA
946 583 133 / 617 825 907
canboto@canboto.com

 **Belar**
Metal Casting

Padureta Industrialdea 4
48215 Iurreta (Bizkaia)
Tel.: 943 03 80 79
comercial@belarmc.com
www.belarmc.com

 **IRIARTE**
caldereria / burdin lanak

Poligono Industrial Ertzilia, 2 - Pabellones 17-18
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel. 946 814 890 - Fax: 946 816 245
contacto@caldereriariarte.com

www.caldereriariarte.com

Aritz Maldonado IURRETA

Saioa Aginako ilustratzaile gasteiztarraren irudiak iragarriko ditu Iurretako aurtengo San Migel jaiak. Irudi koloretsu bat proposatu du, bere estiloagaz lerratua, plaza koloretsu eta jendetsu bat irudikatzen duena. Aginakok 2021ean ekin zion ilustratzaile ibilbideari, eta teknika tradizionalak eta digitalak uztartzen ditu. Besteak beste, 2024an Mazoka marrazki azokaren beka jaso zuen, eta aurtengo Gasteizko Inauterietako kartela egin du. Orainsu, bere lanetarikoa bat 16. Catálogo Iberoamérica Ilustra-rako aukeratu dute. Hemeretzi herrialde-tako 682 ilustratzailek parte hartu dute bertan, eta gasteiztarraren lanak aipamen berezia jaso du erakusten duen "sentsibiltate estetiko eta indar narratiboagatik". Saioa Aginako gasteiztarraren lanaz gainera, María José de Telleriaren (Argentina), Paula Bustamantaren (Txile), eta Rocío Katzen (Argentina) lanek jaso dituzte aipamen bereziak; Armando Fonseca mexikarrak eraman du sari nagusia.

Pozik zaude Iberoamérica Ilustrarako hautaketagaz?

"Kolorea oso presente dago nire lanetan, beti"

SAIOA AGINAKO ILUSTRATZAILEA

Saioa Aginakok eginiko kartelak irudikatzen ditu aurtengo San Migel jaiak; jai batzordeko kideek jaiak zelan ikusten dituzten irudikatzea izan du erronka nagusi

Bai, oso pozik! Iberoamérica Ilustran irabazle bat eta lau bat aipamen berezi egoten dira, eta, horrez gainera, 30 bat ilustratzailearen lanak sartzen dituzte katalogoan. Orain urte bi nire lan bat katalogorako hautatu zuten eta aurtengoa aipamen berezien artean egon da. Niretzat, ilustratzaile legez, nire lana Euskal Herriatik eta Espainiatik kanpora ezagutarazteko aukera da, eta, gainera, nire lanari egingandako aitortza bat ere bada, *feedback* berezi bat. Azken finean, aitortza bat da egiten dudanari; zelanbait esateko, *bide onetik* noa bat. Ilustrazioaren munduan dabilzan editoreek eta beste

profesionalek zure lana ezagutzeko modu bat ere bada; erakusleho handi bat da.

Iurretako jaietara etorrita, kartelean zure estiloa antzeman daiteke, koloreen erabileran, batez ere. Ezagutzen dituzu Iurretako San Migelak? Zerk inspiratu zaitu?

Jai batzordeko Maitanegaz egon naiz hartu-emanetan. Ez ditut Iurretako jaiak ezagutzen, eta berarentzat eta Jai Batzordearen-tzat jaiak zer diren galdetu nien: zer egiten den, norentzat egiten diren, zer den garrantzitsua eurentzat, zer gustatuko litzaiekeen kartelean agertzea... ohiko galderak. Berak esandakoagaz eta nik neure aldetik topatutako

irudiekin, beste urteetako programa eta kartelak ikusita ekin nion lanari. Badakit garrantzitsua dela Abadetxea ere, adibidez. Bertan leiho batzuk daude margotuta, koloreekin, eta niri ere asko gustatzen zait lanak kolore lauekin abiatzea. Askotan, serigrafia eta visografia kontuetarako egiten ditut lanak; teknika hauekin koloreak nahastu egiten dira. Adibidez, kolore bi erabilita hirugarren bat atera daiteke; urdina eta horia erabilita, berdea lortu dezakegu. Hori nire irudietarako aprobetxatzen dut. Teknika horiek erabiltzea asko gustatzen zait, eta, modu horretara, CMYK hartu nuen; zian, magenta eta

Saioa Aginako.

Bulegorako ziguiluak
Fotolitoak



Betikoak
flexografia

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

NIFA, S.L.
Auto-Servicios

Adiuen estia euromaster.com

PNEUMATIKOAK · OLIO
ALDATZEA · BERRIKUSPEN
OFIZIALA · BALAZTAK ·
MOTELGAILUAK

EUROMASTER
Mantenimiento del vehículo

AUTOSERVICIOS NIFA
Mallabiera auzoa, 4
48215 Iurreta (Bizkaia)
Tel (kamiotak): 946 812 604
Tel (turismoak): 946 812 566
nifa@autoserviciosnifa.com

GOIURIA ERRETEGIA

Bizkaiko jatetxe klasiko honetan jatea plazer hutsa da, duen terrazarekin eta ikuspegi ikusgarriekin. Gaztu egur-labeen egindako txuletoia, txerrikumea eta arkumea, txingarretan egindako arraina eta eguneko menuak.

Goiuria auzoa, 16
Erreserbak 662 915 621 telefonoan
Asteleheneretan itxita atsedenaldiagatik

asadorgoiuria

MOINBE BERRIZ S.L.
MONTAJES Y REPARACIONES
HERRERIAS DE BARRIO

Instalazioak eta konponketak:
PRENTSA HIDRAULIKOAK
PRENTSA MEKANIKOAK
ELIKAGAILUAK
MAKINEN BERRERAIKETA

Arriandi Industrialdea, E-37
Tel: 94 681 24 06 - Mug: 609 34 87 76 - Fax: 94 681 50 89
moinbeberrizsl@gmail.com / 48215 IURRETA / Bizkaia

BIKE&SNOW
UNDARRI

ZURE BIZIKLETA,
ESKI ETA PATINETEEN
TAILERRA

Aitor Undarri
www.undarri.eus
info@undarri.eus
Tel.: 946 817 808

Ibai-Ondo

Gosariak
Pintxoak
Errazioak

ibaiendolurreta

662 505 682
Ibai Ondo

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK
IZARBE

LANPARAK
OPARIAK
SUKALDEKO ETA
ETXEKO ALTZARIAK

Tel: 946 812 280
izarbek@izarbek.com
Bixente Kapanaga, 3
48215 Iurreta / Bizkaia



Iurretako 2025eko jaietako kartela.

**"ILUSTRATZAILE
LEGEZ, JAKIN-MINA
DUT IRUDIKATZEN
DEN MUNDURA
HURRERATZEKO"**

**"GARRANTZITSUA
DA KARTEL
LEHIAKETETAN
EPAIMAHAI KRITIKO
BAT EGOTEA"**

horia hartu nituen, eta nahaste horietatik inspiratu nintzen.

Erronka handia suposatzen dizu ezagutzen ez duzun zerbait marrazteak?

Hasieran, eskatu zidatenean, galdera horiek nituen buruan. Jaiak ezagutzen ez nituezen, beldur moduko bat nuen. Dena dela, erronka legez hartzen dut; lana ondo egiteaz gainera, bezeroak gura duena irudikatze gogo ere izaten dut.

Denboragaz ohitu zara horretara?

Egia esateko, ohikoa da. Ez duzu zertan ezagutu eskatzen dizuten dena, baina ilustratzaile legez badut jakin-min hori, gerturatzeko gogo eta lan hori, irudikatu gura duzun mundu horretara ahalik eta gehien hurreratzeko. **Koloreez gainera, natura ere bada zure lanen ardatzetariko bat.**

Gai gehiago ere gustatzen zait jorratzea, baina natura beti dut presente, oso gertuko sentitzen dudalako neure egunerokotasunean. Egiten ditudan irudietan beti ditut presente elkarbizitza natura eta elkarzaintza. Horieta-ko zerbait beti sumatzen da nire lanetan.

Ez dituzu Iurretako jaiak ezagutzen, baina baduzu asmorik etortzeko?

Gonbidatu naute eta gustatuko litzaidake joatea, baina lana dela eta ez dakit joan ahal izango naizen. Lan bi bidali dizkirate oraintsu eta irailaren amaierarako amaitu behar ditut. Lanak entregatzeko data hurbildu ahala urduri ipintzen naiz eta momentuan bertan ikusiko dut. Baina gustatuko litzaidake, bai jaiak ezagutzeko eta baita Jai Batzordeko kideak ezagutzeko ere.

Kartel lehiaketetan parte hartu izan duzu. Azken urteetan eztabaida plazaratu da adimen artifizialagaz egindako kartelak aurkeztu dituztelako. Zelan ikusten duzu honen eragina ilustrazioan, edo zer suposatzen dizu zuri horrek sortzaile legez?

Inpotentzia moduko bat eragiten dit, eta amorrua ere bai. Adimen artifizial generatiboak orain arte sortzaileek Interneten ipinitako materiala lapurtzen du. Informazio hori du eta irudiak errepikatzen gai da. Nire ustez, garrantzitsua da horrelako lehiaketetan epaimahai kritiko bat egotea, arte bisualaren edo artearen inguruan ezagutza edo sentsibiltate minimo bat duena; begirada kritiko bat izatea eta artearen eta kulturaren munduagaz hartu-eman bat izatea.

www.zuremenua.eus 688614162 info@zuremenua.eus

etxerako zein lantokirako catering zerbitzua

zuremenua
gozatzeke otorduak

ospakizunak • txokoak • herri bazkariak
jaiak • enpresa bazkariak • luntxak

**ESTANCO
IURRETA**

Zubiaurre, 3 - 48215 Iurreta
Tel.: 944 668 237

Mallabiena K21

**M.Z.O. ITURGINTZA
GASA
BEROGAILUA
ERAIKUNTZA, S.L.**

Mallabiena Industrialdea, 6
48215 IURRETA
Tel.: 944 818 062 / 944 818 051
mallabiena@mallabiena.com
www.mallabiena.com

IKUSPEGI BERRIA

Eguneko menua
astelehenetik barikura

Asteburueta
kartako menua

Pintxoak eta
errazioak egunero

Martitzena eta
eguaztana itxita

Goiuria auzoa 12, 48215 Iurreta • 944 667 41 08

FURESA

BODEGUILLA

944 669 357
bodeguillaiurreta

Jaietako argazki bereziak saritzeko lehiaketa

Iurretako Jai Batzordeak argazki lehiaketa antolatu du, lehenengoz. Lehiaketa hau ANBOTOGaz elkarlanean antolatu du. Bertan parte hartu gura dutenek www.anboto.org atarian ipini beharko dituzte argazkiak, irailaren 28tik urriaren 9ra bitartean



Iurretako jaietako argazki bat.

M.Z. IURRETA

Iurretako Jai Batzordeak, ANBOTOGaz elkarlanean, jaietako argazki lehiaketa antolatu du, lehenengoz. Herriko jaietako argazkirik berezienak aukeratzeko lehiaketa izango da eta bertan parte hartu gura dutenek www.anboto.org atarian ipini beharko dituzte argazkiak, lehiaketarako beren-beregi sorturiko atal berezian.

Jai batzordeko kideek jakinarazi dutenez, argazki lehiaketak sari bi izango ditu. Bata epaimahai batek erabakiko du, eta bestea publikoak, botoen bitartez. Hauek dira sariak: Larrinagatxu jatetxean lagun birentzako menu berezia eta Ikuspegi jatetxean lagun birentzako eguneko menua.

Oinarrirei dagokienez, parte hartzaileek honako hauek kontuan hartu behar dituzte: argazkiak 2025eko irailaren 28tik urriaren 5era bitartean ateratakoak izan beharko dira, parte hartzaile bakoitzak hiru argazki aurkeztu ditzake gehienez, mezu iraingarriak dituzten eta genero ikuspegia errespetatzen ez dituzten argazkiak ez dira

onartuko, eta inteligentzia artifizialagaz egindako argazkiak ere baztertu egingo dira.

Epeak

Jaietako argazki lehiaketan parte hartzeko epea 2025eko irailaren 28tik urriaren 9ra artekoa izango da. Denbora tarte horretan, parte hartzaileek www.anboto.org webgunean ipini beharko dituzte argazkiak.

Webgune bidezko bozketa hurrengo egunean hasiko da, urriaren 10ean. Eta herritarrek urriaren 16ra bitartean aukeratu ahal izango dute euren argazkirik gustukoena, haren alde botoa emanda.

Jaietako lehenengo argazki lehiaketa honetako irabazleen berri urriaren 17an emango dute, www.anboto.org atariaren bitartez.

**LEHIAKETAK
IRAILAREN 28TIK
URRIAREN 9RA ARTE
EGINDAKO ARGAZKIAK
BATUKO DITU**

Parques y Jardines
Lorezaintza - Kirol Zelaia
Hidroerretia - Golf Zelaia

Goztifikatu azukrea
IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 813 793
946 812 633 - 946 215 580
Fax: 946 819 082
parques@parquesjardines.euskalnet.net

JAVI
HARATEGIA

Akondo Kalea, 1 - Iurreta
Tel.: 944 86 80 36

IURRETA
HARATEGIA
FRUTA - DENDA

Bixente Kapanaga, 4
IURRETA
Tel.: 687 568 200

ASIMAIR
COMPRESORES

**SALMENTA ETA
ASISTENTZIA
TEKNIKO ZERBITZUA**

Ertzila ind., pab. 7, 8 eta 16 - 48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 202 415 - asimair@asimair.com
www.asimair.com

txirula
MUSIK

www.txirula.com
Pol Ertzila, Pab. 5 n° 20 Iurreta
48215 Bizkaia
94 681 14 43
info@txirula.com

**LOTERIA ETA APUSTUEN
ADMINISTRAZIOA
- IURRETA -**

Dantzerikalea, 4 - Tel.: 946 202 159

Loterías y Apuestas del Estado

Smurfit Westrock
Central Forestal

+55 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZARITZEN

Smurfit Westrock
Nervión




LOTU

Lotu animaliak kopuruagaz.



PAPIROFLEXIA



"Literatura afrikarrak harritu egiten gaitu, ez dugulako ezagutzen"

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI FILOLOGOA

LITERATURA Afrikako literaturari buruzko ikastaroa eskainiko du Ainhoa Aldazabalek Durangoko Bizenta Mogel Bibliotekan; izena emateko epea zabalik dago

Aritz Maldonado DURANGO

Bizenta Mogel bibliotekak eskainiko duen nobedadeetarikoa bat *Emakume Afrikarren Literatura* ikastaroa da; Ainhoa Aldazabalek emango du.

Afrikatik bidaia bat proposatuko duzu literaturaren bitartez.

Lehenengo egunetik metodologia berari jarraitzen diogu, eta, beraz, liburu piloa eta bibliografia luzea dago mahai gainean, eta bakoitzak hartzen ditu irakurri gura dituen liburuak; etxera eramaten ditu eta hurrengo saioan bueltatzen ditu, iruzkin txiki bat eginda. Behin hori esanda, ahozko literaturatik hasten dugu ikastaroa. Afrikako literaturaren % 80 inguru ahozkoa da eta hortik hasten gara; ahozko literatura analizatzen dugu, musika entzuten dugu... Egia esanda, ez dago erregistro handirik, eta ondoren idatzizkora pasatzen gara. Metodologia honegaz, gura den beste irakurtzea bermatzen da, eta klasean ematen den teoria literaturaren bitartez ikustea. Hau da, lotura izatea klasean ikusten dugun teoriagaz; adibidez, Afrikako ekonomiaz aritzen bagara, liburuetan ikusi daiteke gero. Honi lotuta, Afrika erabiltzen dugu, ez dagoelako nahikoa itzulpen egiteko; adibidez, emakume senegaldarren literaturari buruzkoa. Geroago eta itzulpen gehiago dago, baina oraindik ez nahikoa ikastaro oso bat emateko. Kontzeptu legez, badakigu Afrika ez dela estatu bat, kontinente bat da, eta badakigu herrialde bakoitzak bere ezaugarriak dituela, baina bateragarriak dituzten gauzak ikusteko egiten dugu, zelan osatzen den ikusteko.

Bakarra izan ez arren, zeintzuk ezaugarri ditu literatura afrikarrak?



Ainhoa Aldazabal Gallastegui. IRATI AYERZA

"LITERATURAN ISLATZEN DA AFRIKARREK HERIOTZAGAZ DUTEN HARTU-EMANA"

Idatzizko literatura itzulia, gaztelaniaz heltzen dena, ze euskaraz askoz ere gutxiago dago, hizkuntza kolonoetan idatzia da, frantsesez eta ingelesez batez ere. Hau da, ez dute euren ahozko hizkuntzetan idazten. Beraz,

ezaugarrietariko bat da euren estiloan ahozkoasunezko adierazpen pilo bat sartzen dutela. Horrek sentsazio berezi bat sortzen du, zu egon zaitezkeelako gaztelaniara itzulitako testu bat irakurtzen, baina wolof hizkuntzako adierazpenekin. Beste alde batetik, mendebaldekoa ez den beste kultura askogaz gertatzen den moduan, heriotzagaz duten hartu-eman, presentziekin eta hildakoekin duten hartu-eman guztiz desberdina da eta hori asko islatzen da euren literaturan. Oso azpimarragarria da ere, Afrikari buruz pentsatzekoan, klise piloa etortzen zaigula burura: pobrezia, umea amaren gainean eta abar; beste literatura guztietan legez, bada go landa eremuari begiratzen diona, lurrari begiratzen diona, tradizioak indar handia duena, baina badago beste literatura afrikar bat hirian kokatzen dena, lanagaz zerikusia duena. Oso literatura anitza da. Batzuek kliseekin betetzen dute, eta beste batzuek ez, eta horrek asko zabaltzen du kontinenteari buruz dugun begirada. Aldi berean, hango emakumeen aldarrikapenak gurekin parekatu daitezke, oso antzerakoak direlako, beste modu batera edo beste zera batzuekin, baina, zelanbait, aldarrikapenak oso antzekoak dira. **Ezezagutzagaitik izan daiteke.**

Guztiz. Kliseengaitik uste da Afrika horrelakoa dela, baina batzuk aberatsak dira, beste batzuk eskolara joaten dira, moderno janzten dira, beste batzuk tribalak dira, bidaiatu egiten dute... Mestizaje asko dago gainera, eurentariko askok migratu egiten dutelako.

Wolofera aipatu duzu. Idazten dute euren hizkuntzetan?

Ezetz esango nuke. Euren hizkuntza presente dute, baina ingelesez ere asko egiten dute. Askotan guk ere gaztelaniazko esapideak sartzen ditugun moduan, eurek ere joera hori izaten dute idazten dutenean. Alde batetik, aldarrikapena da, eurena

dena aldarrikatzeko sartzen dute, baita harridura sortzeko ere; ez beti, baina Afrikako literaturan asko ikusten da hori, irakurlearen hori sortu gura dutelako. Eurenak diren nabardura asko ematen dizkie hizkuntzak.

Durangokoa ez da ikastaro hau ematen duzun lehenengo aldia.

Iaz Eibarren eman nuen, eta Iurretan ere eman nuen orain urte batzuk. Urtero aldatzen da zeozer, liburu berriak publikatzen direlako.

Eta zelako harrera izaten dute parte hartzaileen artean?

Zortekoa naiz, nire lana asko gustatzen zaidalako. Gainera, etortzen diren gehienak emakumezkoak dira, irakurtzea asko gustatzen zaie, eta baita gure metodologia ere. Harrapatuta sentitzen dira, zelanbait, klasean ikusten dugun teoria liburuetan ikusten dutelako gero. Lehen esan dudan moduan, oso estimulatzailea da hori. Oso predisposizio zabala dute eta proposatzen diedan ia denari baietz esaten diote. Orokorrean, ikastaroetan horrela dela esango nuke, baina Afrikako literaturak, batez ere, asko harritzen gaitu, ez dugulako ezagutzen. Chimamanda Ngozi Adichie ezagun egingo zaigu beharbada, baina oso autore gutxi ezagutzen dugu eta ez dugu hango idiosinkrasia ezagutzen. Haien aniztasuna harrigarria da, zelako edertasunagaz idazten duten, eta, beraz, gure saioak oso estimulatzaileak dira. Irakurketei eskerrak, burua eta bihotza pizten zaizkigu.

Chimamanda aipatu duzu. Afrikako literaturetan sakondu gura duenak, nondik jo dezake?

Oso bibliografia luzea dugu eta elkarregaz analizatzen dugu klasean, gainera. Kasu batean, denok irakurtzen eta aztertzen dugu liburu bat: *Hain gutun luzea*, Mariama Ba egile senegaldarrak 1979an idatzi zuena. Euskaraz dagoen bakarrenetarikoa da. Buchi Emecheta ere garai hartakoa da, klasi-koagoa.

Unidad Alavesak hasiko du denboraldia Amaraunen

MUSIKA Lapurretek sorturiko oztopoak gaindituta, Abadiñoko Amaraun Arte Fabrikan domekan ekingo diote denboraldi berriari; Unidad Alavesa talde gipuzkoarrak kontzertua joko du, 13:30ean; martxoan ziren emanaldi hau egitekoak

A. M. ABADIÑO

Hile hasieran salatutako "lapurreta gogorraren" eta haren osteko elkartasun uholdearen ondoren, Amaraun Arte Fabrika normaltasunera bueltatuko da asteburu honetan, hau da, zuzeneko musika eskaintzera. Unidad Alavesa taldeak kontzertua emango du domekan, irailak 21, 13:30ean. Urte hasieran ere kontzertua jotzekotan ziren gipuzkoarrak, baina bertan behera utzi behar izan zuten, osasun arazoengaitik. Horrela, iaz kaleratu zuten *Motoki, zakurreki, egurreki* azken diskoko abestiak zuzenean aurkezteko biragaz jarraitu eta eskualdeko zaleekin zorra kitatu ahal izango dute.

Urtea amaitu arteko kontzertu sorta iragarri du oraintsu Amaraun kultur guneak. Ohikoa den moduan, askotariko eskaintza egongo da. Alde batetik, Durangaldeko hainbat taldek joko dituzte kontzertuak. Irailaren 25ean SYO talde berriztarak, 19:30ean;



Unidad Alavesa taldea.

ondoren, Lionels (urriak 30) eta Moonshakers (abenduak 18) taldeak etorriko dira; Niña Coyote eta Chico Tornado bikotearen doinu desertikoez eta Willis Drummondekoko Ekiza musikariaren alde intimoaz ere gozatu

ahal izango da, urriaren 5ean eta 9an, hurrenez hurren. Marell talde frantziarraren eta Jason's Clandestined talde japoniarraren bisita ere jasoko dute hileotan. Amaraun Elektronikoaren hamargarren edizioa egingo dute.



Eresma bikotea.

Iñaki Palaciosek eta Eresmak amaituko dute Eleizetan zikloa

MUSIKA Asteburuan, txistu eta gitarra doinuekin beteko dituzte Etxanoko eta Garaitondoko elizak

A. M. ZORNOTZA

Eleizetan kontzertu zikloa bere azken asteburura heldu da. Zapatuan, hilak 20, Iñaki Palacios musikari gasteiztarak txistu kontzertua emango du. "Euskal Herrian hain errotuta dagoen musika tresna honegaz batera egon ez diren elementu eta erritmoak uztartzen ditu; entzulearentzat soinu fresko eta erakargarri josten ditu bere abestiak", azaldu dute antolatzaileek. 20:00etan izango da emanaldia, Etxanoko Andra Mari elizan, eta, ohikoa den moduan, doako autobusa ipiniko dute bertara

joateko, 19:30ean, San Migel kalean, Osasun zentroaren parean.

Bestalde, domekan Eresma gitarra bikoteak emango du kontzertua, 19:00etan, Garaitondoko San Isidro elizan; bertara joateko autobusa 18:30ean irten go da, ohiko geraldutik. Eresmak 100 kontzertu baino gehiago eman ditu, baita nazioartean ere, eta hainbat jaialdi garrantzitsutan ere parte hartu du, hala nola Panticosako Nazioarteko jaialdian eta Europako beste hainbat ziklo eta jaialditan. 2018an sortu zuten taldea, Salzburgo Unibertsitate Mozarteum ospetsuan.



GAI LIBREAN

ESTI ALBIZU GOIKOETXEA BIZENTA MOGEL

Irakurtzearen indarra: klubetan sortzen den komunitatea

Irakurtzea beti izan da aterpea. Liburuen orrialdeetan arnasa, patxadaz hausnartzeko tarte eta bestelako munduetara zabaltzen den leihoa topatzen ditugu. Irakurtzeak zoriontasun sotila dakar: jakin-mina asetzea, emozioak piztea eta gure bizitza ulertzeko beste modu batzuk erakustea.

Baina irakurketa ez da soilik esperientzia intimoa. Liburuak partekatzen direnean, hitzek komunitate bat eraikitzen dute. Horixe da Bizenta Mogel Bibliotekaren programazioaren funtsa: irakurketaren plazera gizarteratzea, taldean pentsatzea eta eztabaida elikatzea. Eta hori eskaintza zabal baten bidez egiten du, narritatik poesiara, komikitik hezkuntza edo zientziara.

Aurtengo ikasturterako, eskaintza horren barruan lau proposamen berri ditugu:

'Humanos y naturaleza' zientzia-irakurketako kluba, non gizakiaren eta naturaren arteko harremanak aztertzen diren ikuspegi zientifikotik, Rachel Carson edo Margaret Atwood bezalako autoreekin.

'Zinergiak' zinemari buruzko irakurketa kluba. Ez dugu zineari buruz bakarrik hitz egingo: artearen bidez mundua ikusteko modu desberdinak esploratzeko gonbita da,

"IRAKURLE TALDEEK ERAKUSTEN DUTE IRAKURKETAK ZER NOLAKO AHALMENA DUEN"

diziplina askoren begiradak gurutzatzen dituen.

'Filosofia en diálogo' eztabaida kluba, bizitzako gai nagusiei buruzko solasaldia sustatzen duena, aurreiritziak, adiskidetasuna edo sufrimendua bezalako galderen bitartez.

'Emakume afrikarren literatura' klubean ahozko literaturatik hasi eta zenbait herrialdeetako proposamen literarioak irakurri, aztertu eta partekatuko ditugu.

Irakurle taldeek erakusten dute irakurketak zer nolako ahalmena duen, ez soilik bakarkako gozamen eskaintzeko, baizik eta jakintza partekatzeko eta ikuspegi berriak irekitzeko ere. Bizenta Mogel Bibliotekako programazio anitzak horixe lortu nahi du: irakurketatik komunitatera, liburuetatik elkarriketara eramatea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 19

DURANGO Goienkaleko jaiak
Txupinazoa eta aurrekua Ama Birjinari, 20:00etan. Ondoren, Sagarri Txaranga. Samsaya berbena, 21:00etan. *Goienkalean.*

DURANGO Erakusketa
'Ikusiezina baina ahaztezina. Lurrinaren eta kosmetikaren historia'. *Arte eta Historia Museoa*n, *irailaren 21ean.*

DURANGO Erakusketa
Rai Bikandiren lanak. *Ezkurdi aretoan, irailaren 28ra arte.*

MAÑARIA Musika
Serigrafia tailerra (Torontile), 18:00etan, plazan. Eñaut Elorrieta. *Andra Mari elizan, 20:00etan. Leku mugatua.*

ZORNOTZA Jaiak
Txupinazoa, 18:00etan. Zumb@ Belen, 18:30ean. Igel txapelketa, 19:00etan. Tortilla txapelketa, 19:30ean (aurkezpena, 20:30ean). DjZirkir+ Karaokea, gauerdian. *Ogenbarrena auzoan.*

ZAPATUA 20

DURANGO Goienkaleko jaiak
Geu Be elkartearen eskutik txorizo banaketa, 13:00etan. Sagarri txaranga, 13:30ean. Paella txapelketa, 15:00etan. Bazkaria, 15:30ean. Sagarri txaranga, 17:30ean. Meza, 19:00etan, Santa Anan. *Goienkalean.*

DURANGO Bisita gidatua
'Durango a través de la historia'. (Izen ematea: 94 603 39 38 / turismo@durango.eus). *Turismo Bulegoan (12:30-14:00).*

ZORNOTZA Jaiak
Babarrun lehiaketa, 10:00etan. Aulki eta mahai banaketa, 10:30ean. Umeen puzgarriak, 11:00etan. Alain Barañano eta Ander Aidazabal bertsolariak, 13:00etan

Kazolen entrega, 14:00etan. Sari banaketa, 14:30ean. Apar jaia, 16:00etan. Dj Mangas, 17:00etan. Mus Lehiaketa, 17:30ean (izen ematea, 17:00etan). Euskal Herriko Txistu Topaketa, 19:00etan. Iraultza plaza taldea, 22:00etan. *Ogenbarrena auzoan.*

ZORNOTZA Txistu Eguna
XXIV. Txistu Eguna: Adurtza (Gasteiz), Usartza (Eibar), Oskia (Iruña), Gazteak (Erreenteria), Getxa Goi (Urduña), Kakinkabara (Bermeo), Jaizale (Durango) eta Udazken (Zornotza) taldeekin. *Zornotzako kaleetan, arratsaldean.*

ZORNOTZA Kontzertua
Iñaki Palacios. Eleizetan. *Etxanoko Andra Mari elizan, 20:00etan (autobusa doan, 19:30ean, San Migel kalean).*

DOMEKA 21

ABADIÑO Kontzertua
Unidad Alavesa. *Amaraun Arte Fabrikan, 13:30ean.*

BERRIZ Bisita gidatua
'Markesaren paisaiak'. Gerediaga eta Urkiola Landa Garapena. (Izen ematea: 94 681 80 66 / gerediaga@gerediaga.eus). *Berrizen, 11:00etatik 12:30era.*

DURANGO Goienkaleko jaiak
Gilda txapelketa, 13:00etan. Durangoko Musika Banda, 13:30ean.

DURANGO Musika
Thierry Biscary, (Kalakan) abeslari eta perkusionistaren eta Oreka TXko txalapartarien elkarlanetik sortutako lana ikusteko aukera egongo da domekan: *Babes*. Musikarekiko pasioa eta aitatasuna batzen ditu. *Irailak 21, domeka, San Agustin kulturegunean, 17:00etan eta 18:00etan.*

Mariatxiak, 13:30ean. Igel txapelketa (Rugby) + Mus txapelketa (Gure Kabiya eta Arkupe) + Dardo txapelketa (Kale Kantoi), 16:30ean. Zumba (Angelman elkarte), 17:00etan. Txokolatada, 19:00etan. Poteoa trikitilariekin, 19:30ean. *Goienkalean.*

IURRETA Urteurrena
Orozketako auzo eskolaren mendeurrena. Antzinako erretratuekin bideo emanaldia, oroimen plaka eta luntxa. *Orozketan, 12:00etan.*

ZORNOTZA Jaiak
Merkatu solidarioa (11:00-15:00). Musika eta dantza kubatarra (Ernesto), 12:00etan. Txistulariak, 12:00etan. Wadokan, 12:30ean. Trikitilariak, 13:00etan. Txorizoa sagardotan egosia, 13:30ean. *Ogenbarrena auzoan.*

ZORNOTZA Kontzertua
Eresma Guitar Duo. Eleizetan. *Garaitondoko San Isidro basilizan, 19:00etan. (Autobusa doan, 18:30ean, San Migel kalean).*

MARTITZENA 23

DURANGO Berbaldia
'Bizitzeko lagundu: adinekoen suizidioaren prebentzioa' (Hizlaria: Lorena Martin psikologoa). *Adinekoen Udal Zentroan, 18:15ean.*

EGUAZTENA 24

DURANGO Goienkaleko jaiak
Jubilatuena bazkaria, 14:00etan. Poteoa trikitilariekin, 19:00etan. *Goienkalean.*

EGUENA 25

ABADIÑO Kontzertua
SYO taldea. *Amaraun Arte Fabrikan, 19:30ean.*

BERRIZ Antzerkia
'Numenak' (Yarleku konpainia). *Berrizjauregi Lorategian, 17:00etan.*

ZORNOTZA Berbaldia
'Agroekologia: zigilu ekologikoan oinarritutako balioen topalekua'. *ENEK-Ekolorra, Kontseiluaren egoitzan, 16:30ean.*

BARIKUA 26

ELORRIO Antzerkia
'El ventrílocuo' (Jaime Figuerola). *Arriola antzokian, 20:00etan.*

MALLABIA Bertso afaria
Bertso afaria Iban Urdangarin eta Iker Zubeldiagaz, trikitilari eta panderojoleek girotuta. Lekua erreserbatu behar da (696 058 967). *Herriko Tabernan, 21:00etan.*

MAÑARIA Kontzertua
'Elektrizitateak' (Aitor Monje 'Mudoh'). Sarrera libre. *Angurretan, 19:00etan.*

ZINEMA

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Un gran viaje atrevido y maravilloso
Barikua 19: 18:00, 20:30. Zapatua 20: 16:30, 19:00, 21:30. Domeka 21: 17:00, 19:30. Astelehena 22: 18:00, 20:15. Martitzena 23: 18:00, 20:15. Eguaztena 24: 19:00.

Mi amiga Eva
Barikua 19: 18:00. Zapatua 20: 19:30. Domeka 21: 19:30. Astelehena 22: 18:00, 20:15. Martitzena 23: 18:00, 20:15.

Afterburn
Barikua 19: 18:00, 20:30. Zapatua 20: 19:00, 21:30. Domeka 21: 19:30. Astelehena 22: 18:00, 20:15. Martitzena 23: 18:00, 20:15. Eguaztena 24: 19:00.

Guardianes de la noche: La fortaleza infinita
Barikua 19: 20:30. Zapatua 20: 16:30, 21:30. Domeka 21: 16:30.

Angelo en el bosque misterioso
Zapatua 20: 17:00. Domeka 21: 17:00.

Carmen (opera)
Eguaztena 24: 19:00.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

Sirat
Zapatua 20: 20:00. Domeka 21: 20:00. Astelehena 22: 20:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Jone, batzuetan
Barikua 19: 20:00. Zapatua 20: 20:00. Domeka 21: 20:00. Astelehena 22: 20:15

Los tipos malos 2
Zapatua 20: 17:00. Domeka 21: 17:00.



KALAKAN ETA OREKA TX

Joseba Derteano ZORNOTZA

Zornotza Royal Boxingek eta Lions Fight Klubek Basque Warriors boxeo jaialdia antolatu dute zapaturako. Ixerbekoa kiroldegian izango da eta 19:00etan hasiko da. Orain arte antolatu duten gaubelarik inportanteena izango da; sei borrokaldi amateur eta neoprofesional mailako lau daude. Tartean, Euskadiko gerriko bi egongo dira jokoan. Cristian Galindo jaialdi hau posible egin duenatariko bat da. **Laugarren aldia denetan itzelen izango da?**

Dudarik barik. Lehenengo biak Zornotza Boxeo Eguna deitu ziren. Ondoren, Basque Warrior gerrikoak sortu genituen eta gau-jaiak izen horixe hartu zuen. Aurtan, gure gerrikoak ez ezik neoprofesional mailako Euskadiko beste bi ere egongo dira jokoan. Gerrikoek beste hedadura eta oihartzun bat ematen diote ekitaldiari.

Maila neoprofesionalaren helburua amateuretatik profesioaletara dagoen saltoa leuntzea da?

Bai. Alde handia dago amateuretatik profesioaletara: esku-larruak diferenteak dira, round gehiago dago, fisikoki beste prestakuntza bat eskatzen du... Mundu profesioalean aritu gura duenak argi izan behar du non sartzen den. Ringeria igotzea gauza serioa da eta lan handia dago atzetik. Horregaitik, tarteko maila bat egoteak asko laguntzen du. Urte asko dira neoprofesioaletako borrokaldirik egiten ez zela Euskadin. Amateurrak zuzenean pasatzen ziren profesioaletara. Valentzian eta Galizian, oster, horrelako borrokaldiak modan daude. Euskadiko Federazioak ikusi du zeresana ematen dutela, eta aurtan antolatzen utzi digu.

Borrokaldi batzuetan eskualdeko boxeolariak izango dira protagonista. Nortzuk dira?

Pello Gutierrez zornotzarrak Euskadiko gerrikoa izango du jokoan. Bizkaiko eta Euskadiko txapelketak irabazitakoa da amateur mailan. Denbora gutxi darama boxeoan, baina oso goian dabil. Gogotsu entrenatzen da eta lortzen dabilen dena ondo merezitakoa da. Ali Taabate gipuzkoarra izango du aurkari. Alik hainbat bider irabazi du Euskadiko txapelketa amateurretan. Orain, biek beste pauso bat emango dute neoprofesioaletako gerrikoa lehiatuta. Basque

"Pello Gutierrez zornotzarrak Euskadiko gerrikoa izango du jokoan"

CRISTIAN GALINDO VASCO (ZORNOTZA, 1991) BOXEO JAIALDIKO ANTOLATZAILEA Desiratzen dago Zornotzan zapatu honetarako antolaturiko boxeo jaialdia heltzeko. Borrokaldi ikusgarriak itxaroten ditu eta boxeolari zornotzarrak egongo dira tartean



Cristian Galindo, Zornotzako gimnasioko sarreran.

Warrior gerrikoan Jon Ander Calvo zornotzarrak parte hartuko du. Sopolako Rivero gimnasioko Josu Fuertes izango du kontrario. Zaleek borrokaldi biek in gozatuko dutela uste dut. **Zeintzuk dira neoprofesioaletako beste borrokaldi biak?**

Euskadi mailako beste borrokaldia hau da: Carlos Barbosa Reni Agirreren kontra. Agirrek gerrikoa ipiniko du jokoan. Eta Barbosa Espainiako txapelduna da K1 modalitatean. Orain boxeo probatzen dabil, maila onean gainera. Basque Warrior mailan Getxoko BUNK3R klubeko Jon Ander Blancok gerrikoa ipiniko du jokoan. Nafarroako Iparbox klubeko Diego Floresen aurka borrokatuko da. Pike polita dago bien artean. Teknika eta potentzia handiko boxeolariak dira eta borrokaldi ederra eskaini dezaketela uste dut. Sarrerak egunean bertan Ixerbekoako leihatilan erosi ahal izango dira,

"KERMAN LEJARRAGARI ASKO ZOR DIOGU, EGUNDOKO AFIZIOA SORTU ZUEN"

"BOXEOAK KERMAN LEJARRAGAREN SASOIAN JO ZUEN GOIA INGURUOTAN. MODAN IPINI ZUEN"

17:30ean hasita. Asteazkenean, Zornotzan nahiz Gernikan ditugun gimnasioetan ere esku-ratu daitezke.

Zein da boxeoaren egoera eskualdean eta Euskal Herrian?

Boxeoak Kerman Lejarragaren sasoiaren jo zuen goia inguruotan. Erreferente bat zen. Boxeo utzi zuenean, zaletasuna jaitzi egin zen apur bat, eta orain berriro gorantz doa. Egia esanda, asko zor diogu Kermani. Egundoko afizioa sortu zuen eta 10.000 laguneko kiroldegiak betetzen zituen. Andoni Gago boxeolaria ere aipatuko nuke. Eta Txutxi del Valle promotoreak lan handia egin zuen boxeoari ikusgaitasuna emateko.

Zu zeu ere boxeolaria izandakoa zara. Zelan gogoratzen duzu sasoi hura?

K1ean eta MMA aritu eta gero, boxeo pasatu nintzen. Probaturako guztitik boxeo gustatu zitzaidan gehien. Besteek ez duten zerbait eman zidan. Kerman Lejarragaz entrenatu nintzen urte askoan. Gerora, irakasle izateko tituluak ateratu nintzen. Gimnasio txiki batek hasi nintzen eta orain bi ditut: Zornotzan eta Gernikan. Promotoreei laguntzen ere ibiltzen naiz. Boxeo eta bere ingurua nire ogibide bihurtu dira.

Ring gaineke sasoiaren falta igaritzen duzu?

Ez, boxeo irakasteak guztiz asebetetzen nau. Gaur egun 250 lagun ditugu entrenatzen, adin guztietakoak. Zortzi urteko ikasleak ditut, eta baita 65ekoak ere. Testuinguru desberdinetatik datozen ikasleak dira. Batzuk sasoi txarra pasatzetik datoz. Euren laguntzen nabilela sentitzea itzela da. Gainera, bi-hiru kenduta, gainerako denak gugaz hasi dira, elkarregaz hazi gara. Gugaz ikasi dute eta guk euren ikasi dugu.

Boxeoaren eta MMAren artean ika-mika bat baino gehiago izan da azken urteetan. Azken adibidea lila Topuriarena da, boxeolariak gutxietsi dituelako. MMAk boxeoari erreferentzialtasuna kendu diezaiokeela uste duzu?

Ez dut uste. Topuria modan dago eta jendea modan arabera mugitzen da askotan. Baina nik Topuria kaiolan ikusten dudanean boxeo ikusten dut. Badaki lurrean borrokatzen, aurkaria eraisten, baina beste ezeren gainetik boxeatu egiten du. Niretzat eta askorentzat boxeo da kirolik konplikatuena.

Durangoko III. Mendi Duatloia, urriaren 4an

MENDI DUATLOIA Durangoko III. Mendi Duatloia urriaren 4an egingo dute; izen ematea irailaren 29ra bitartean dago zabalik; Euskadiko Txapelketako puntuagarria da eta Mugarra Triatloi Taldeak antolatu du proba; egun osoko egitaraua prestatu dute

Aritz Maldonado DURANGO

Mugarra Triatloi Taldeak Durangoko III. Mendi Duatloia antolatu du urriaren 4rako; aurten ere, Euskal Herriko zirkuituko mendi duatloia ez ezik, duatloi herrikoia eta umeentzako antolatu dituzte; umeen duatloian proba inklusiboa egiteko aukera ere egongo da. Probak mendia, arineketa eta bizikleta uztartzen ditu eta horrek egiten du berezi eta erakargarri. "Aurten ere denentzako moduko lasterketak antolatu ditugu", azaldu du Aitor Iraurgi Mugarra triatloi taldeko kideak. Kirolariek bakarka edo bikoteka (erreleboka) parte hartu ahal izango dute mendi duatloian. Hasteko, hiru kilometro egin beharko dituzte korrika; ondoren, hamar bizikletan, eta jarraian beste hiru lasterka. Parte hartu gura duenak irailaren 29ra arte izango dute epea *rockthesport.com* atarian izena emateko. Urriaren 4ko hitzordua zaletasuna bultzatzeko ere baliatuko dute. Horrela, umeen duatloiko, duatloi inklusiboko eta duatloi herrikoiko parte hartzaileek distantzia laburragoak egin beharko dituzte. Lasterketa horietarako izen ematea egunean bertan egin beharko da. Proba



lazko irudi bat.

herrikoian 14 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute, eta 8,5 kilometro egin beharko dituzte (2,5 km lasterka). Umeen duatloia 7tik 14 urtera bitartekoentzat da eta distantzia adinaren arabera izango dira.

herrikoian 14 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute, eta 8,5 kilometro egin beharko dituzte (2,5 km lasterka). Umeen duatloia 7tik 14 urtera bitartekoentzat da eta distantzia adinaren arabera izango dira.



Orekari bat Mugarako hatxetan 'highline' saioa egiten. OREKA TOLOSA

'Highline' jardunaldia egin dute Mugarra eta Arranatx artean

OREKA Oreka Tolosa taldeko kideek soka gaineko oreka jardunaldia egin zuten joan zen domekan, hatx artean

Ekaitz Herrera DURANGO

Soka gaineko oreka kirola da *Highline*, soka bat altuera nabarmenean tenkatu eta haren gainean oreka galdu barik ibilita egiten dena. Bada, joan zen domekan, Oreka Tolosa klube-kideek era horretako jardunaldia egin zuten Mugarra eta Arranatx lotuta. 134 metroko altueran 639 metroko soka tenkatu, eta han ibili ziren atzera eta aurrera, orekari eusteko ibilaldi ikusgarriak egiten.

Oreka Tolosako kideek jakinarazi dutenez, eurak izan dira lehenengoak Mugarako hatxe-

tan halako instalazio bat ipintzen eta soka gainean ibiltzen. Gaineratu dute jardunaldia pribatua izan zela eta Urkiolako Parke Naturaleko zein Bizkaiko Foru Aldundiko baimen guztiekin egin zutela. Era berean, ingurune naturala behar den moduan errespetatu zutela adierazi diote ANBOTOr.

Soka astebetez egon da ipinita hatxean. Joan zen asteburuaren hasieran muntatu zuten dena. Domekan egin zuten kirol jardunaldia eta gaur erretiratu dute instalazioa. Argazkiak *anboto.org* atarian daude.



JOKALDIA

OIHANA AZKORBEBEITIA URIZAR MENDI LASTERKETAK

Infernuan bekatuaren harragaz

Bost egun dira Espainiako Vuelta amaitu dela, bost egun Palestinako bandera artean lehiatu duen proban bizikletatik jaitsi zela, eta orain ulertu eta barneratu ditu lasterketa hankaz gora ipini duten protesten esangura, Gazan bizi duten errealitate krudel, sinestezin eta onartezina, eta bera dagoen txirrindularitza taldeko partaide izatearen hanka-sartzearen dimentsioa. Lur jota dago eta ez da horrela dagoen bakararra taldean.

Inoizko lehiaketarik gogorrena egin zaio Vuelta. Porru eginda amaitu du, fisikoki eta psikologikoki. Lau urte daramatza Israel taldean eta inoiz ere ez du halakorik bizi izan. Kontratua sinatu zuenean belarriaren harra barru-barruan zuen, bere printzipioei lepoa eman eta estatu genozida baten aldeko taldean eragingo zielako pedalei. Baina taldeak aukera bikaina eman zion txirrindularitzan jarraitzeko, diru kopuru polita ere bai, eta, bere kirol ibilbidea eta sosak lehenetsita, taldera batu zen.

Orain etorri dira komeriak. Ernegua, lotsa eta errua sentitzen ditu, herrialde oso bat desagerrarazi gura eta 20.000 ume gosez eta bonbez hil dituen (hiltzen dabilen) estatu genozida bat hauspotzen ibili delako azken urteetan, haren izena paparrean eroanda, haren alde izerdia botata, eta harek hildako palestinarren odolez bizikletaren katea koipetuta. Askotan entzun du zertarako sortu zen txirrindularitza talde hau, kirolaren bitartez Israelek Palestinan (batez ere) egindako barrabaskeriak zuzitzeko eta munduaren aurrean Israelen irudia garbitzeko, kirolaren balioei ostikada ederra emanda bide batez, baina halako komentarioen aurrean belarriak itxi egin ditu beti, nekeza delako halako errealitate gordinari aurre egitea. Eta orain odolkiak ordainetan, jakina.

Lasterketan zalentza izan du ihes egin edo tropelean geratu eta ikusezin jarraitu, Palestinako banderei eusten zieten ikusleen eta gainerako txirrindularien beldur. Izan ere, denek argi utzi diete ez dutela begi onez ikusten

Israel tropelean egotea eta taldeak lasterketa bertan behera uztea zela irtenbide bakarria istilurik ez egoteko eta lasterketak bere bidea lasai eta segurtasunez egiteko. Baina ez, taldeak temoso eutsi dio, lasterketan jarraitu du, eta egunak joan egunak etorri tentsioak gora egin du. Eta txirrindulariari hanketako mina baino jasangaitzagoa egin zaio buruko mina, zer esanik ez bihotzekoa, bere pedalkada bakoitza palestinar gosetuei eginiko tiro iruditu baitzaio. Nahikoa tiro ez janaria eskuratzeko ilaretan, eta orain bereak.

Orain, Vuelta amaituta, entrenatzeko ordua da, baina ezin du. Sofa ertzean jesarrita dago, eskuak buruan, negarrez. Errudun eta zikin sentitzen da, infernuan bekatuaren harragaz. Ondoan taldeko mailloa du, baina ez du indarrik janzteko. Higuina ematen dio, milaka gizaki errugaberen odolez zikinduta dagoelako eta palestinarren infernuko sua bizitzeko prenda delako.



Parkea antzerkiak eskaintzeko eszenatoki bihurtu zuten. LUCIA MERUELO



Asier Kidam magoak zur eta lur utzi zituen bisitariak. LUCIA MERUELO



Kriskitinek eta Jaizalek ez zuten hitzordura hutsik egin. LUCIA MERUELO



Txikiek ekokarruselaz gozatu zuten. LUCIA MERUELO



Artisautza salerosketa. L.M.

Elorrioko eta Izurtzako jaiek udako parranden zikloa zarratu dute

Elorrioko Ferixa Nausikoetako sukalkiek eta mozorroek ehunka lagun batu zituzten Aldatsekuaren bueltako zelaietan. Izurtzako Gertufest jaialdira joan zirenek kultur eskaintza zabal eta hurbilaz gozatu ahal izan zuten Santo Tomas parkean

Ekaitz Herrera IZURTZA / ELORRIO
Amaitu dira Elorrioko zein Izurtzako jaiak, eta, horregaz batera, udako jaien egutegia amaierara ailegatu da eskualdean. Joan zen zapatuan, Elorrioko Aldatsekua jauregiko zelaiak jendez bete ziren sukalkien txapelketan. Hitzorduak mozorro egunagaz bat egin zuen eta oke-

IZURTZAKO GERTUFESTEK TOKIKO KULTUR ETA ARTE ESKAINTZA ESZENARATU ZUEN

la gisatua mozorrotuta kozinatzea erabaki zuten kuadrilla askok. Bestalde, Gertufest jaialdiak bere leku propioa egitea lortu du Izurtzako jaietan. Festibalak bere hirugarren aldia izan du aurtengoa, eta, beste behin ere, gertuko eta tokiko sorkuntza kulturalaren aldeko apustua berretsi zuen.



Ezohiko itxura Santo Tomas parkean. LUCIA MERUELO



Txalo zaparradak entzun ziren euskal dantzetan. LUCIA MERUELO



Zirkuko profesionalen antzera, kuadrillak ederto koordinatu ziren. L.M.



Batzuek sagardoa zerbitzatzeko abilezia erakutsi zuten. LUCIA MERUELO



Epaimahaiak makina bat burukomin izan zuen kazolarik onenak erabakitzen. L.M.



Aldatsekua inguruak belaunaldi askotako jaizaleen topaleku izan ziren. LUCIA MERUELO



Sukalkia kozinatzea zen aitzakia, baina aspaldiko lagunak batzea helburua. LUCIA MERUELO



Okelarik ez zen falta izan, ezta gatzik eta piperrik ere. LUCIA MERUELO

KOMIKIA UNAI GAZTELUMENDI



GUARDIAKO BOTIKAK

IRAILAK 19, BARIKUA
09:00-09:00
Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
IRAILAK 20, ZAPATUA
09:00-09:00
Irigoin, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
IRAILAK 21, DOMEKA
09:00-09:00
Sarria, Sasikoa 17 - Durango
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
IRAILAK 22, ASTELEHENA
09:00-09:00
Unamunzaga, Muretatortxe 2C - Durango
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
IRAILAK 23, MARTITZENA
09:00-09:00
Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
IRAILAK 24, EGUAZTENA
09:00-09:00
Mugica, Andra Maria 9 - Durango
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
IRAILAK 25, EGUENA
09:00-09:00
Etxebarría, Montevideo etorb. 2. - Durango
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza

24 orduz zabalik dauden farmaziak dauden zerrendan.
22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: www.anboto.org/botikak

ZORION AGURRAK



Lur
Zorionak, **Lur**, hamasei urte dagoeneko. Ondo ospatu familiagaz eta lagunekin. Asko maitte zaittugu etxeko danok. Mosu erraldoi bat, guapisima!



Lier
Abuztuaren 16an, 11 urte. Zorionak, **Lier!** Abuztuaren 16an Lierrek 11 urte egin ditu. Zorionak, laztana! Jarraitu zaren bezalakoa izaten. Muxu handi bat! Maitte zaittugu!



GOZATU GOZOTEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
☎ 661 40 14 00
f Gozatu Gozotegia
@ gozatugozotegia

Urte askotarako!

Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean **GOZATU gozotegiko tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrarekin batera.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet
Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta *Anboto.org/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa
Mezua bidali *zorionagurrak@anboto.org* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak
Etorri zaitetz Anbotoren ordezkarietara edo deitu 946 232 523 telefonora.

EGURALDIAREN IRAGARPENA

Zapatua, 20



Min. **18°** Max. **26°**

Domeka, 21



Min. **10°** Max. **18°**



INMOBILIARIAK



ERAIKUNTZA BERRIA

IURRETA 3 logela. Garajea eta trastelekua. **282.000 €**-tik aurrera.

AZOKA BERRI 3 logelako etxebizitzak. Garajea eta trastelekuarekin. **387.000 €**-tik aurrera.

ARANDONOTORRE Duplexa. Atikoa. 3 logela eta 2 komun. Terrazak. Garajea eta trastelekua. **C.E.E=B.**

AUKERA

Zaldibar: Erdialdean. 3 logela eta komuna. berriztatua. Tarstelekua eta despentsa. **C.E.E.=E 128.000 €**

Zaldibar: Aguiñibar: 3 logela eta komuna. Balkoia. garajea. **C.E.E=F 165.000 €**

Alluitz: Lokala. 70 m2. Egokitua. Erakuslehioa 2 kaletara. **110.000 €**

Abadiño: Pabilioia. 172 m2. Bulegoa, aldagelak eta komunak. Alokairuan edo salgai. **170.000 €**

San Inazio: Garajea. **11.000 €**

ETXEBIZITZAK SALGAI

Erretentxu: 85m2. 3 logela eta sukaldea. Balkoia. Eguzkitsua. **C.E.E=E 275.000 €**

Mañaria: 110 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ikuspegiak. **C.E.E=E 200.000 €**

San Roke: 85 m2. 2 logela, 2 komun, sukaldea eta eskegitokia. ganbara. 2 garaje. **C.E.E=D 282.000 €**

Juan de olazaran: 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Terraza. Garajea eta trastelekua. Jantzia. **C.E.E=B 382.000 €**

Durango: Erdi-banatua. 340 m2. 6 logela eta 4 komun. Txokoa. 3 kotxerentzako garajea. **C.E.E=E 637.000 €**

Artekalea: 94 m2. 5 logela, komuna eta egongela. Trastelekua. **C.E.E=F 195.000 €.**

San Inazio: 3 logela, 2 komun eta eskegitokia. 2 terraza. Eguzkitsua. Garajea. Piztina. **C.E.E=E 265.000 €.**

Baserria, Zornotza: Berriztatua. 436 m2. 3 solairu. 4 logela eta 2 komun. Terrazak. Ganbara. Txokoa beheko suarekin. 4 hektareako lursaila. **470.000 €. C.E:E=F**

Izurtza: Baserria. BERRIZTATZEKO: Lursailarekin. **C.E.E=G 198.000 €.**

Abadiño: Gaztelua. Salgai 866 m2-ko lursail laua. **35.000 €.**

Muntsaratz: Baserria. 670 m2. Familiabakarrekoa. 500 m2-ko lursailarekin. **C.E.E=F 525.000 €**

LOKALAK SALGAI

Juan Mari Altuna: 100 m2. Egokitua. Kearentzako irteera. Alokairuan.

Komentukalea: 100 m2-ko lokala. Egokitua. **160.000 €**

Durango: 100 m2-ko lokala alde zaharrear. Egokituta. Taberna. **125.000 €.**

Durango: Bulegoa. Erdialdean. Lehenengo solairua. **650 €.**



ETXEBIZITZAK SALGAI DURANGO

Goienkalea: Apartamentua. 60 m2. Berriztatzeko. **125.000 €**

Kurutziaga: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Berriztatzeko.

Barrenkalea: Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trastelekua.

Tabira: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 3 balkoi. Argitsua.

Barrenkalea: Logela. sukaldea eta komuna. Trastelekua.

ATXONDO

Atxondo: 3 logela, sukaldea, egongela ederra eta komuna. 2 balkoi. Igogailua. Gasa.

Atxondo: 3 logela, komuna, komun txikia, despentsa, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Ganbara.

LURSAILAK SALGAI

Urrutxua: 9 hektareako 2 baso salgai. Errepidearen ondoan.

BASERRIAK ETA TXALEIAK SALGAI

Muxika: Urrutxua: 90.000 m2-ko lursaila. Konpontzeko dagoen baserria. **90.000 €.**

Abadiño: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatzeko. Lursailarekin. Ganbara.

Berriz: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

Atxondo: Marzana auzoan. 7.500 m2-ko lursaila. Konpontzeko dagoen baserria.

Mañaria: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

BULEGOAK ALOKAIRUAN ABADINO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

DURANGO

Ermodo kalean. 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearekin.

LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde Zaharrear, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

Matiena: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

Elorrio: 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest.

LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI BERRIZ

Berriz: Eitua industrialdea. 180 m2-ko pabilioia. Bulegoa, komuna eta aldagela. Errepide ondoan. Leku onean kokatua.



BERRIZ **Legaño:** 61,2 m2. Egongela-sukaldea jantzia, 2 logela eta komuna duxarekin. Balkoia. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (hegoaldea-iparraldea) Bizitzen sartzeko moduan. Zonalde berdeetatik eta zerbitzuguneetatik gertu. ITE-a pasatutakoa.



DURANGO **Juan de Iziar:** 59,4 m2. Halla, egongela, sukalde jantzia, 4 logela eta komuna duxarekin. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialdea-mendebaldea) Zonalde lasaia. 8 m2-ko trastelekua.



DURANGO **Askatasun Etorbidea:** 78,34. Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Egoera onean baina berrikuntzak behar ditu. Etxe erdiak kanpora ematen du (iparraldea) Argitsua. Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. Garajea eta ganbara. Ezin hobeia gustura jartzeko.



DURANGO **Tronperri:** 89,43 m2. Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (Hego-ekialdea) Argitsua. Leku onean kokatua. Zerbitzugunez inguratuta. Garaje itxia eta 6,8 m2-ko ganbara.

C.E.E: BIDEAN. 359.000 €

DURANGO **Ermodo:** Etxebizitza bihurtzeko bulegoak. 156,63 m2, 2 solairutan banatuta. Lehenengo solairua: 78,85 m2, bulegoak etxebizitza bihurtzeko aukera ematen dute. Bulego-espazioak eta 2 komun ditu. Bigarren solairua: 44,64 m2. Ganbara, ez du aukerarik ematen etxebizitza bihurtzeko eta 33,04 m2-ko terraza. Gaur egun Txoko gisa egokitua. Kanpoaldea (ekialdea-mendebaldea), altua eta argitsua. Leku onean kokatua, zonalde berdez eta zerbitzugunez inguratuta.



DURANGO

Barrenkalea: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

Frantzisko Ibarra: 4 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta 2 komun. Balkoia. igogailua. **335.000 € / E.E.Z=E**

Juan Antonio Abasolo: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Konpontzeko. **170.000 €/ E.E.Z=F**

Juan de Olazaran: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

Komentu kalea: 3 logela, egongela, sukaldea, sukalondoa eta 2 komun. Balkoia. Ganbara. Igogailua. garaje itxia aukeran. **280.000 € / E.E.Z=E**

ABADINO

Dendarikoa: Zaharberritzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 € .**

Eskolakoa: Duplexa. 3 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 325.000 € ORAIN 300.000 € / E.E.Z=G**

Txanporta plaza: Eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **253.000 € / E.E.Z=Bidean**

ATXONDO

Artekalea, 13: Konpontzeko baserria lursailarekin. **300.000 €.**

BERRIZ

Murgoitio auzoa: Berreraikitzeo baserria lurzorua. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €**

Eitua: Berreraikitzeo baserria lursailarekin. **LEHEN 350.000 € ORAIN 330.000 €**

GAHAI

Momoitio auzoa: Etxebizitza eraikitzeo lursailak. Aukera ezberdinak.

IURRETA

Bixente Kapanaga: Zaharberritzeko etxebizitza. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **LEHEN 95.000 € ORAIN 80.000 € / E.E.Z=F**

GARAJEAK SALGAI/ALOKATZEKO

DURANGON SALGAI

Alluitz: Garaje itxia. **24.000 €.**

Kurutziaga: garajea. **18.000 €.**

Kurutziaga: Garaje itxia. **28.000 €.**

Madalenoste: Garaje itxia eta trastelekua. **42.000 €.**

DURANGON ALOKAGAI

Muruetatorre: Garajea. **75 € / hilean.**

Alluitz: Garaje itxia. **75 € / hilean.** Beste aukera batzuk bulegoan galdetu.

LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI/ALOKATZEKO DURANGON SALGAI

Landako etorbidea: 50 m2-ko lokala. **600 €/hil.** **IURRENTAN SALGAI**

KOMENTU KALEA: 30m2-ko lokala guztiz berriztuta. **65.000 € / E.E.Z=F**

ALIENDALDE: 285 m2-ko pabilioia. **250.000 €.**

Padureta: 240 m2-ko pabilioia. Salgai: **370.000 €** Alokagai: **1.680 € /hilean.**



LAU-HORTZA

MARKEL ONAINDIA
TXABARRI

Irribarretxo bat

Errekadu bat egiteko asmoz kalera irten eta nire pentsamenduetan oinez nindoan, pausorik pauso, harik eta begirada altxatu eta Anboto asterikari bulegoaren atarian nengoela konturatu nintzen arte. Denbora bat igaro zen erredakzioko lana amaitu nuenetik, eta zerk eraman ote ninduen berriro? Despisteak, memoriak, subkontzienteak, ez dakit. Gura barik, berez joan zen nire gorputza haraino. Ate aurrean segundo pare bat pasa eta, nire xelebrekeria onartzean, irribarretxo bat ateratzen zitzaidan. Behin baino gehiagotan gertatu zait gauza bera ordutik.

Ez dakit zuei ere antzekorik suertatu zaizuen. Bereziak diren leku eta pertsonengana berez bueltatze hori, nolabait gure bizitzaren parte izan direlako.

Karmele Jaiori entzun nion euskara ez dela daukagun zer bait, garen zer bait baizik, eta Anboto ere Durangaldeko euskaltzaleon izatean dagoela esango nuke. Zutabe honekin ziklo eder bat beteko dut asterikari lauhortzean. Gaurtik aurrera beste bide bat jarraituko dute nire pentsamenduek, barne bulkada batek barikuro orrialde honetara ekarriko nauela badakidan arren. Irribarretxo bat egin eta gustura irakurriko ditut gainerako zutabegileen testuak. Eskerrik asko irakurleoi urteotan letra hauei zentzua ematearren eta ondo bizi. Gora gu eta gutarrak.

AKUILUA

"Sevillan jo genuenean asko gozatu genuen"

AXKOETA BEITIA FAMILIA MUSIKARIAK

Familiako musika-transmisioaren isla dira Alex Axkoeta eta bere hiru alabak: Irati, Garazi eta Naiare. Jaizale elkarteko kide dira eta laurak irteten dira kalejiretan

A. Basauri DURANGO

Alex (Durango, 1973) eta Irati (Durango, 2007) txistuagaz eta danbolinagaz, eta Garazi eta Naiare (Durango 2010) klarineteagaz eta zeharkako flautagaz, kaleak doinuz alaitzera irteten dira. Irati, Garazi eta Naiare Erdi Mailako ikasketak egiten dabilta Bartolome Ertzilla musika eskolan. Alexek Ibon eta Amaia Aromagaz ikasi zuen.

Etxe berean lau musikari topatzea ez da ohikoa.

Alex: Bueno, ez pentsa. Familia askotan izaten da musika-transmisioa, belaunaldirik belaunaldi. Gure ama euskal dantzetan aritzen zen eta arreba eta biok txistua jotzera animatu ginen. Gero, Nerea emazteak eta biok balio handia eman diogu musikari etxean.

Zelan entseatzen duzue?

A.A.: Biko txandetan. Bik baino gehiagok batera jotzea larregi da. Baina zortea dugu bizilagunekin. Dena dela, asko zaintzen dugu noiz eta zelan entseatu.

Zelan duzue agenda? Txistulariak oso preziatuak dira gaur egun.

A.A.: Jaizale txistulari elkartearen buru-belarri gabiltza eta agenda nahiko beteta dugu. Baina geuk



Alex Axkoeta hiru alabekin, Garazi (ezkerrean), Irati (atzean) eta Naiare (eskuman).

gura dugulako! Oso gustuko dugulako, beti dago-eta ezetz esateko aukera. Bada, denerako prest egoten gara. Bihar Durangoko Madalena auzoan joko dugu, eta Zornotzako Txistu Egunean ere parte hartuko dugu.

Klarinetea eta zeharkako flauta ez dira oso ohikoak kalejiretan.

Garazi: Ez. Klarineteak silbotearen afinazio bera du, eta Jaizale elkartearen silbote gutxi dago. Bada, gu ere kalejiran joatera animatu gara.

Naiare: Askok gustatzen zaigu. Mañarian, Zornotzan... jo dugu. Sevillan ere bai, iaz Espainiako Kopako finala jokatu zenean.

Futbolzaleak ere bazarete?

A.A.: Ez gara futbolzale sutsuak, baina Athletic zaleak gara, bai. Eta egun berezia izan zen. Orain arte bizitako politena izan zen. Sevillako kaleetan jo genuen; batzuk dantzan, besteak abesten... egun gogoangarria izan zen.

Egun hori duzue bereziki gogoan?

A.A.: Bai. Gehien gozatu genuen eguna izan dela esango nuke. Sevillako kaleetan jo genuen, eta Athletic Hirian amaitu. Oso polita izan zen. Baina herri txikietan ere asko gozatzen dugu!

N.A.: Sanferminetan ere irten ginen kalejiran, iaz, lehenengoz. Oso ondo pasatu genuen.

Naiare eta Garazi, zuek Tabira bandan jotzeko aukera izan duzue. Eta Irati, zuk Bilboko Filarmonikagaz jo duzu aurrean. Kalejirak ala kontzertuak gurago dituzue?

I.A.: Kontzertuetan presioa handiagoa da, jendea espreski etorri delako entzutera. Kalejiretan giroa alaitzeko jotzen dugu.

N.A.: Bietan gaude gustura.

Non gustatuko litzazuke jotzea?

N.A.: Euskadiko Orkestran sartzeko proba egin gura dut.

G.A.: Nik ere bai.

I.A.: Ezingo nizuke esan.

A.A.: Alabak orkestra handi batean jotzen ikustea gustatuko litzaidake, jakina! Ni neu Athleticen beste final batean jota konformatzen naiz.



Ikusi bideoa

DURANGO

FASHION

GAUA 2025



.....

IRAILAK 26

20:30

ANDRA MARI ELIZPEAN

Parte hartu zozketan



Laguntzaileak:



Antolatzailea:

